

**LH5-6KO HAURREN LITERATUR OBREN
AUKERAKETAREN AZTERKETA
GENERO IKUSPEGITIK**

GRADU AMAIERAKO LANA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA
HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
EHU/UPV

Egilea: AMAIA ALTUNA ETXABE

Zuzendaria: AMAIA SERRANO MARIEZKURENA

Deialdia: 2024KO UZTAILA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Laburpena:

Ikerketa honetan, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetan gizonen eta emakumeen pertsonaiak aztertu dira. Modu honetara, liburu horiek ea genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten ikertu da. Horretaz gain, adin tarte honetan, liburuen aukeraketara zein bitartekariren bidez heldu diren jakin eta erreferentziazkoak diren bitartekariak identifikatu dira. Horretarako, erabili den ikerkuntza metodoa kualitatiboa izan da; eskola publiko bateko 98 haur izan dira parte hartzaileak eta horietatik gehien errepikatu diren 17 liburuen genero irakurketa egin da. Azkenik, datuak aztertu, interpretatu eta ondorioak atera dira.

Lehen Hezkuntza; genero estereotipoak; bitartekariak; Haur eta Gazte literatura

Resumen:

Este estudio ha evaluado las representaciones de hombres y mujeres en los libros leídos por niños de 10 a 12 años, con el objetivo de investigar la presencia de estereotipos de género. Además, en esta franja de edad se han identificado los mediadores de referencia que han accedido a la selección de los libros. Para ello, el método de investigación utilizado ha sido cualitativo, con la participación de 98 niños de una escuela pública y realizando una lectura de los 17 libros citados por 34 niños. Finalmente, se analizaron e interpretaron los datos recopilados, llegando a conclusiones.

Primaria; estereotipos de genero; mediadores; literatura Infantil y Juvenil

Abstract:

This study examines the portrayal of male and female characters in books read by children aged 10 to 12 to investigate whether these books reproduce gender stereotypes. Additionally, in this age group, the key mediators who influenced the selection of books were identified. The research method used is qualitative, involving 98 children from a public school and analyzing the 17 books mentioned by 34 of these children. Finally, the data have been analyzed and interpreted, and conclusions have been drawn.

Primary school; gender stereotypes; intermediaries; Children and Youth literature

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Aurkibidea:

1.Sarrera	5
2.Marko teorikoa.....	6
2.1.Literatura bizitzako baliabidea	6
2.2.Literaturaren irakurketa eta eskola.....	7
2.3.Haurren irakurketa-ohiturak	10
2.4.Bitartekariak.....	11
2.5.Corpora	14
2.6.Literatura eta sexismoa.....	15
3.Lanaren diseinua	18
3.1.Helburuak, hipotesiak eta ikerketa galderak	18
3.2.Ikerkuntza metodoa	19
3.3. Lagina	20
3.4.Aldagaiak.....	21
3.5.Datuak aztertzeke tresna	22
4.Emaizak.....	23
4.1.Galdetegi kualitatiboan ateratako emaitzak	23
4.2.Haurren irakurgaien genero-analisisa	25
4.3. Idazleen eta ikasleen generoaren arteko lotura	33
5.Ondorioak	36
6.Bibliografia:.....	43
7.Eranskinak.....	46
I.Eranskina: Galdetegia	46
II.Eranskina: Liburu zerrenda	46
III.Eranskina: Corpora.....	48
IV.Eranskina: Datuak aztertzeke fitxa	49
V.Eranskina: 1.taula: Galdetegi kualitatibotik ateratako liburu zerrenda	51
VII.Eranskina: 11.taula: Ezaugarri psikologikoak	54
VIII.Eranskina: Inplikazio etikoen aitortza	55

1.Sarrera

Jarraian aurkezten den Gradu Amaierako Lanaren bitartez, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetakako pertsonaiak ea genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten aztertu da. Horretaz gain, haurren irakurketa ohiturak ikertu eta adin tarte honetan, bitartekariak duten garrantzia ikusi da.

Lan hau osotasunean egiterako orduan, Lehen Hezkuntzan ikasi ditudan kompetentziak eta trebetasunak ardatz izan dira. Batez ere, graduko azken urteko minorrean, izan ere, Haur eta Gazte literaturaren gainean hausnartu eta hainbat ikaskuntza barneratu ditugu, hau, ezinbestekoa izan da lan honetarako. Horretaz gain, ikerketa hau Garapen iraunkorreko (GIH) bosgarren eta laugarren helburuekin lotzen da. Helburu hauek, kalitatezko hezkuntza eta genero berdintasunaren gainekoak dira.

Lan honetan datuak jasotzeko, metodologia kualitatiboa erabili da. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak (10-12 urte) izan dira parte hartzaileak. Haurrei bitartekariak eta irakurri duten azken liburuaren gaineko bi galdera zehatz egin zitzaizkien. Metodologia kualitatibotik ateratako informazioarekin, liburuaren irakurketa analitiko bat egin da eta irakurketa bakoitzarekin, genero estereotipoak antzemateko fitxa bat bete da.

Ikerketa honen helburu nagusia, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetan agertzen diren gizonaren eta emakumearen irudietan genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten aztertzea da. Horretarako lan honetan hurrengo aspektu hauek aurki daitezke:

Batetik, marko teorikoan ikerketarako nagusi izango diren gaiak landu dira. Horretarako, bilaketa bibliografikoa egin da eta hainbat autoreren ekarpen teorikoak jaso dira. Bigarren atala, lanaren diseinuari dagokio; bertan, erabilitako metodologia eta lagina azaltzeaz gain, hipotesiak, ikerketa galderak eta helburuak aipatu dira. Hirugarren atalean, helburuak oinarri izanda, ikerketan ateratako emaitzak aztertu dira eta azkenik, ondorioetan, emaitzak interpretatu eta hipotesien bidez, hainbat konklusio atera dira.

2. Marko teorikoa

2.1. Literatura bizitzako baliabidea

Literaturaren irakurketa ezaugarri bereziak dituen komunikazio-ekintza bat da eta literatur lanak kultura eta testuinguru baten emaitzak dira (Cerrillo, 2013). Sernak (2015) dio ikuspegi instrumentaletik irakurketa, ezagutzara iristeko bidea dela, jakituriarako baliabidea eta ezagutza transmititzeko ezinbesteko tresna. Literaturaren bitartez, irakurleak gaitasun intelektuala eta pentsamendu kritikoak garatzen ditu. Komunikazio-ekintza hau, hizkuntza hutsetik haratago doa eta irakurleek gaitasun hori sistematikoki eskuratu izan du (Cerrillo, 2023). Testu literarioetan, irakurlearengana hurbiltzeko hizkuntza sortzaile eta estilo berezia erabili izan ohi da (Permach, 2022).

Literatura teoriaren gaineko korrante nagusi batzuk, irakurleen harrera gaitasuna bereziz, Haur eta Gazte Literatura (HGL) aztergai izan dute eta desberdintasun nabarmenak identifikatu dituzten HGL eta helduen literaturaren artean. Helduei zuzenduta dauden lanetan, berdinen arteko komunikazioa bermatzen da, hau da, egilea eta irakurleak testu baten bidez komunikatzen dira eta biak dira testuinguru horren parte, nahiz eta, garai historiko berekoak ez izan edota testuaren interpretazioa desberdinak egon. HGL lanetan ordea, ez dago berdinen arteko komunikazioa, izan ere, autoreak heldu bat da eta irakurlea haurra. Gainera, kasu askotan, ez dira haurrak beren irakurketa hautatzeko aukera dutenak. Kasu honetan, irakurlea bere nortasunaren eraikuntza amaitu ez duen haur bat da eta irakurketa prozesuan egoteaz gain, oraindik, bere gaitasun konnotatiboa mugatua du (Cerrillo, 2016).

Haurtzaroan eta nerabezaroan, irakurmena ulertzeko gaitasun maila desberdinak eta progresiboak daude. Horregatik da hain beharrezkoa literaturak haurren lehenengo urteetan ere garrantzia edukitzea. Lehen literatur irakurketek, haurren irudimenezko mundua sortzen laguntzen diete. Gainera, literaturaren bitartez, haurrek txikitatik pertsonak asmatu eta imajinatzeke duten beharra asetzen dute (Cerrillo, 2016).

Permachek (2022) bere lanean, HGLn literatur genero hauek sailkatu ditu eta genero bakoitza eskolan helburu zehatz batzuetarako erabiltzen direla dio:

Poesia: Hezkuntzan poesiak ezinbesteko eginkizuna betetzen du eta haurren interesa areagotzen laguntzen du. Genero honen bidez, eremu komunikatiboak, linguistikoak, kulturalak edota sozialak bultzatzen ditu.

Poema epikoa: Bertsoak diren arren, testu narratiboak dira eta istorio bat kontatzen dute.

Alegia: Genero hau ipuin laburrek osatzen dute eta gizakiak ez diren protagonistak dira nagusi. Askotan ipuinaren amaieran, ikaskizun bat ikus dezakegu, istorio labur hauek etika eta moralarekin lotura izaten dute.

Ipuina: Pertsonaia gutxi dituen narrazio laburrak dira. Egitura hiru multzotan banatzen da; hasiera, korapiloa eta amaiera.

Eleberria: Normalean luzeak izaten diren eta prosaz idatziak dauden testuak izaten dira. Narrazio hauetan, pertsonaia ugari agertzen dira eta konplexuagoak dira.

2.2.Literaturaren irakurketa eta eskola

Garai batean, herritarren artean ahozko literatura oso zabaldua zegoen eta gutxiengo batek zuen aukera bere etxeetan zituzten liburuak erabiliz, irakurtzen hasi eta bere klase sozialaren balioak gertutik jarraitzeko. Eskolaratzearen hedapenak, irakurketa tresna eman zien herritarrei eta gizarte modernoek funtzionamenduak alfabetatze tasa handiagoa ekarri zuen. Gaur egun, mendebaldeko gizarte honetan haur guztiek liburuak edukitzeko eskubidea bermatu nahi da (Colomer, 1999).

Ilido horretan, ikastetxeek haur eta gazteen irakurketari lekua eskaini diote, eta kasu askotan, eskola da haurrak liburuak eskuratzeko duen espazio bakarra (Equipo Peonza, 2001). Izan ere, ulertu da ezinbestekoa dela haurrei denbora batez liburuz betetako espazio batean bizitzeko aukera ematea, bertan, jardueren eta hizkuntza idatziaren arteko harremana etengabea izango baita (Colomer, 2009). Ikastetxeak irakurketa esperientzia atseginak bermatu behar ditu. Modu honetara, haur eta gazteak gai izango dira; zer irakurri nahi duten erabakitzeko, gustuko ez dutena identifikatzeko eta irakurri nahi duten ala ez esateko (Jover, 2008).

Literaturaren helburuetako bat irakurlea heztea da. Irakurgai bidez; balioak transmititu, izateko moduak sustatu eta eredu sozialak batzuk bultzatu nahi dira

(Apalategi, 2011). Horretaz gain, literaturak eragin zuzena du identitatearen eraikuntzan, eta funtsezko elementua da prozesu horretan. Irakurketa literarioaren alderdi nabarmenetako bat irakurleek beren espazio intimoa sortzeko eta garatzeko duten gaitasuna da. Irakurketa literarioek hainbat lurralde edota leku ekartzen ditu gogora, horrek irakurleari bertatik urruntzeko, ihes egiteko, aztertzeko eta hazteko aukera ematen dio (Petit, 2001).

Irakurketak forma ugari hartzen ditu baina azken helburua bakoitzaren bidea autonomiaz erabakitzeko eta eraikitzeko gaitasunean datza. Irakurketa ez da soilik ikasketarako tresna soil bat, inplikazio pertsonal sakona du eta ezinbesteko garrantzia du norbanakoaren bizitza osoan zehar (Solé, 2012).

Irakurketak haurren heziketa emozionalean ere badu eragina (Alonso, 2017). Izan ere, garapen kognitiboaren osagarri gisa ipuinek garapen emozionala bultzatu nahi dute. Sentimenduak eta emozioak tresna egokiak dira harreman afektiboak edukitzeko. Horregatik, beharrezkoa da horiek egoki adierazten ikastea, guzti horrek bizikidetzan laguntzen baitu (Ibarrola, 2018). Gainera, ipuinen bitartez, pertsonaien sentimenduak eta emozioak identifikatu eta ulertzen dituzte. Haurra, enpatia garatuz, pertsonaiek sentitu dezakeena bizitzeko gai da (Alonso, 2017). Literaturak lagundu egiten die haien mundua eraikitzen eta elkar hobeto ezagutzen (Aparicio, 2016).

Pertsona bat hazten den heinean, bere gaitasunak areagotu egiten dira eta gero eta testu landuagoak, zabalagoak eta exigentzia handiagoak irakurtzeko gaitasuna lor dezake. Horretaz gain, adinaren arabera, gai zehatz batzuk interes handiagoa pizten dute haur eta gazteengan. Jaiotzen diren momentutik, literaturarekin harremana edukitzen dute, izan ere, haur kantuak entzuten dituzte eta haurren hasierako hilabeteetan beraiek gertutik ezagutzen dituzten elementuak ikusi nahi dituzte ipuinetan (Lluch et al., 2009).

Hurrek ipuinak eta istorioak eskatzen dituztenean, gurasoek eta hezitzaileek literaturaren munduan murgiltzeko prozesuan lagundu behar diegu haurren lehen narratzaileak bihurtuz (Aparicio, 2016). Gainera, ipuina irakurtzeko ekintza hori komunikazio afektiborako ekintza bihurtzen da, ipuinak haurren eta helduaren arteko lotura afektiboa indartzeko balio dezake, afektibitate eta konfiantzarako une goxoak

sortuz. Modu honetan, irakurketa ekintza baten moduan, bizipen afektibo eta emozionala bihurtzeko gai da (Alonso, 2017).

Sei urtetatik aurrera, haurra pixkanaka idazten eta irakurtzen hasiko da. Fantasia eta errealtatea hurbil dituzte eta egoera zailen aurrean beldurra izaten dute. Adin honetako haurrek istorioen egitura kronologikoa ulertzeko gaitasuna dute eta nahiago izaten dute piraten eta gazteluen gaineko ipuinak irakurri. Gainera, helduek ipuinak irakurtzea gustuko dute (Lluch et al., 2009).

Bederatzi urtetatik aurrera, beraien kabuz gehiago irakurtzen hasten dira eta pixkanaka autonomia lortzen doaz. Beraien ingurutik urruntzen diren gauza berriak ikusi eta ikasi nahi dituzte. Irudimenezko pertsonaiak eta egoerak irakurri nahiago dituzten arren, familia bizitza islatzen duten eta haurraren egunerokotasuna ulertzen laguntzen duten ipuinak gustuko dituzte. Modu independentean irakurtzeko gai dira eta irakurtzen dutena ulertzeko gaitasuna dute. Adin tarte honetan, ipuin klasikoak, adiskidetasunaren eta familiaren gaineko istorioak edota fantasiako narratibak irakurtzen dituzte (Lluch et al., 2009).

Hamabi urterekin irakurle autonomoak dira, trebetasunez irakurtzen dute. Dena azaltzeko arrazoiak bilatuz, bizitzaren gaineko liburuak irakurtzen hasten dira, haurrak pertsonaiekin identifikatuak sentitu nahi du. Adin tarte honetako haurrek komikiak edota nerabeek bizi dituzten gatazken gaineko liburuak irakurtzea dute gustuko. Hamabost urtetik aurrera, norberak bere interesak ase nahi ditu eta irakurketa erakargarria egiten ez bazaie ez dute irakurri nahi izaten. Adin tarte honetako nerabeek irakurtzen dituzten liburuak nortasunaren, familia-harremanen, adiskidetasunaren edo maitasunaren gaineko kontakizunak izan ohi dira. Irakurtzen dituen liburuetan, bere burua irudikatuta sentitu nahi du (Lluch et al., 2009). Horretaz gain, HGLn, haurren generoaren arabera haurraren irakurketa kontsumoa desberdina da. Izan ere, orokorrean neskek mutilek baino gehiago irakurtzen dute eta mutilen liburu gustukoak protagonista femeninoak ez dituzten liburuak izan ohi dira. Nesken eta mutilen nahiek eta lehentasunek merkatu literarioa guztiz baldintzatzen dute (Aparicio, 2016).

2.3. Haurren irakurketa-ohiturak

Gaur egun, duela hamabost urte baino liburu gehiago argitaratzen dira eta ekoizten diren liburuen kalitatea hobea izan ohi da. Gainera, irakurketaren gaineko prestakuntza ikastaro, mintegi edota kongresu ugari egiten dira. Sekula ez zaio hainbesteko arretarik jarri haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeari. Hala ere, ez dirudi lortutako emaitzak espero zirenak direnik (Equipo Peonza, 2001).

Siadecok (2018) Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak aztertu zituen. Ikerketa horretan, argi ikusi zen liburuek merkatua badutela, baina irakurketa jaisten ari dela. Izan ere, gaur egun, biztanleriak gero eta denbora gutxiago du irakurtzeko, horren kasuan, telebista edota mugikorarekin denbora gehiago igarotzen da.

Irakurri nahi izatea da irakurtzeko ohitura edukitzea. Zehazki, plazerez eta era boluntarioan izatea. Horretarako, irakurketak gure bizi estiloan egon behar du. Bizi-estiloa norberak egunerokotasunean dituen ohitura eta jarrerak osatzen dute. Bertan, norberaren lehentasunak identifika ditzakegu eta horregatik lotzen da irakurtzeko ohitura bizi-estiloarekin (Yubero, 2009 *apud* Serna, 2015).

Serna (2015) autoreak Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak aztertu zituen. Bere lanean, irakurtzeko ohituren oinarria hiru printzipio nagusietan laburbiltzen dela dio:

- Irakurtzeko ohitura eraiki behar den zerbait da, txikitatik piztu eta garatu daiteke eta hainbat ikasketen bidez ere lortu daiteke.
- Gizarte osoak du ohitura honen ardura: familia, liburutegia, instituzioak, editoreak...
- Hainbat ariketak, irakurtzeko ohitura bultzatu eta egonkortu dezakete.

Jakin badakigu irakurzaletasuna bultzatzeko teknika desberdinak daudela. Izan ere, azken urteetan, hainbat tresna erabili dira haurrak irakurle bihurtzeko. Horretarako, ezinbestekoa da edozein jarduera hasi haurretik, egingo duguna zertarako eta zergatik egin nahi dugun pentsatu eta argi edukitzea (Equipo Peonza, 2001). Hala ere,

irakurzaletasuna bultzatzeko jarduera horiek jolasean soilik zentratzen badira, zailagoa izango da irakurtzeko ohitura indartzea (Colomer, 1999).

2.4.Bitartekariak

Irakurtzeko ohitura sortzea ez da garapen naturala, honako hau, kulturen errotuta dago eta hizkuntza eskuratzeko prozesurik zabalenean txertatzen da. Prozesu horrek, irakurlearen bidean gidaritzak aktibo bat emango duen gizarte, eskola eta familia ingurune bat eskatzen du. Izan ere, bitartekari batek ez badiu haur bati irakurtzeko gaitasuna duela eta irakurketa bizi osoan zehar baliagarria izango zaiola esaten, litekeena da haurrak bere kabuz ez irakurtzea. Bitartekari horrek gertukoa izan behar du, irakurketarekin konprometitua eta haurri irakurtzeko prestakuntzaren prozesuan lagunduko diona (Equipo Peonza, 2001).

Helduek liburuak sortzeko ardura izateaz gain, belaunaldi berriak kulturen integraztearen ardura dute. Ingurune sozialetan (familia, eskola, liburutegiak, liburudendak...) hasten dira liburuak ezagutzen. Bitartekaritza eraginkorra denean eta haurrek liburuetan interesa dutenean, irakurtzeko trebetasuna garatzen hasten dira. Modu honetara, liburuak aukeratzeko gaitasuna lortzen dute helduaroan, erabateko independentzia lortuz (Colomer,1999). Izan ere, argi dago bitartekariaren zeregina aldatu egiten dela. Haurrak autonomia pertsonal handiagoa du liburutegira bere kabuz joateko edota liburuak bere diruarekin eskuratzeko, gainera, gero eta gaitasun handiagoa du noiz eta non irakurri nahi duen erabakitze edota zer irakurri nahi duen aukeratzeko (Equipo Peonza,2001).

Bitartekariaren lana, gaur egun eskura dagoen literatur eskaintza zabalaren artean, aukeratzen irakastea da. Horretaz gain, beharrezkoa da haur eta gazteak ezagutzea, horretarako; nolakoak diren, zer pentsatzen duten, nola eta zer sentitzen duten, nola ulertzen duten mundua, zer nahi duten eta zein amets dituzten jakitea garrantzitsua da. Gainera, zenbat eta liburu gehiago ezagutu, orduan eta onuragarria izango da bitartekaritza lana (Equipo Peonza,2001).

Familia

Familia eta eskola dira haurrak eta gazteak literaturaren munduan sartzen dituztenak. Izan ere, bitartekari hauen esku dago haurrak literaturarekiko estimua sustatzea, kalitatezko literatura ezagutzea edota kontsumitu eta ekoiztea (Permach, 2022). Oro har, irakurleak ipuin edota poesia hitzarekin eduki zuen lehenengo lotura familiaren bitartez izan zen eta hor aurkitu zuen liburuaren presentzia fisikoa (Equipo Peonza, 2001).

Familiak bitartekari gisa jarduten dutenean, irakurzaletasuna sustatzeko metodorik onena familiak berak irakurketan aktiboki parte hartzea da. Hala ere, horrek ez du esan nahi, guraso irakurleak izan arren, haurrak irakurzaletasun bera edukiko duenik. Garrantzitsua da etxean hurrek irakurri nahi duten ala ez erabakitzeak aukera izatea eta helduek hori errespetatzea. Horretaz gain, bitartekari hauek kontuan izan behar dute haurren aisialdiko denboraren kudeaketa horrek eragin zuzena edukiko duelako haurrak irakurketari eskaintzeko dion denboran (Otegui, 2024).

Eskola

Eskolak ezinbesteko garrantzia du irakurzaletasuna bultzatzeko orduan, izan ere, familiak egiten duen lana osatu eta kasu askotan, haren ordezkoa izaten da (Equipo Peonza, 2001). Horregatik da hain garrantzitsua literaturan bitartekari honen lana, eskola bitartekari moduan haur guztiei aukera berdina emateko ardura du eta hori lagungarri da diskriminazio arriskuan dauden haurrentzat (Otegui, 2024).

Garrantzitsua da eskolak bi irakurketa mota daudela jakin eta bereiztea. Alde batetik, irakurketa funtzionalaren helburua; ikasle guztiei aukera berdina zabaltzea eta haurrak gizartean integratzea da. Aldiz, irakurketa ohitura bihurtzearen helburua; irakurzaletasuna bultzatuz, irakurketa ohiturak eskuratzean datza (Equipo Peonza, 2001).

Liburutegia

Liburutegia baliabide askoren zentroa izan ohi da, espazio honek hainbat euskarri ditu; liburuak, diskoak, prentsa, bideoak, ordenagailuak... Bertan lan egiten duten profesionalek irakurlearen eskaerak asetzeari gain, erabiltzaileen gustuak ezagutu eta irakurketa edo autore berriak aurkezteko gai izaten dira. Gainera, liburutegira joatea

norberaren erabakia izaten denez, irakurketarekiko duten jarrera, aldekoa izan ohi da. Bertaratzen direnek, informazio kontsultatuz, beraien prestakuntza beharrei erantzuteko aukera edukiko dute (Equipo Peonza, 2001).

Ohikoa izaten da hurrek irakurketa eta eskola zuzenean lotzea. Irakurketarekiko duten ikuspuntua zabaltzeko, interesgarria da haurrak liburutegi publikora joatea. Bertan, liburuaren artean adin guztietako erabiltzaileak ikusteko aukera edukiko dituzte eta hori lagungarri izan daiteke (Permach, 2022).

Liburu denda

Liburu dendak ez dira soilik liburuak saltzen diren espazio hutsak. Bertako langilea irakurzalea izateaz gain, bezeroak liburuak irakurtzera gonbidatu edota animatzen ditu dendara sartzen diren bezeroen literatur bitartekari bihurtuz. Hori bereziki deigarria izaten da haurren liburu sekzioan, izan ere, bertaratzen diren bezeroak haurrak edo helduak izan daitezke eta sarri, informazio gutxi izaten dute eskuratu nahi dituzten liburuei buruz. Bertako langileak egoera horri aurre egin behar izaten dio dendan eskaintzen dituen liburuaren ezagutza sakonaren bitartez. Garrantzitsua izan ohi da liburu saltzaileak bezeroarekiko konfiantza eta segurtasun giroa bermatzea, gomendioak emateko (Equipo Peonza, 2001).

Jakin badakigu, liburu denda bateko espazioa mugatua izaten dela. Horren ondorioz, bertako arduradunak bezeroei interesa piztuko dieten liburuak aukeratu behar ditu jendearen begi bistan jartzeko. Aukeraketa hori oso garrantzitsua izaten da eta liburu horien artean kalitatezko liburuak egoten dira (Otegui, 2024). Gainera, liburu dendetan liburuak erosteko aukera edukitzeaz gain, aurkikuntzarako eta gozamenerako lekua bihurtzea funtsezko estrategia da irakurketaren etorkizunerako (Mata, 2009).

Booktuber-ak eta Influencer-ak

BookTuber eta influencer-ak indar handia hartu dute azken urteetan, hauek, orokorrean irakurle gazteak izaten dira eta gazte literaturarekin lotuago daude. Jarraitzaileak bat datoz interes horiekin eta irakurtzeko liburuaren bila, gomendioak jarraitzen dituzte. Esan dezakegu, BookTuber-ak konfiantzazko bitartekari edota literatur kritikari gisa jarduten dutela eta, YouTube bideoak partekatuz sortzen dute irakurleen komunitatea (Garcia-Roca, 2021). Literatura-fenomenoa teknologiarekin

batera, eboluzionatu eta eraldatu egin da eta BookTuberrak dira horren emaitza (López, 2017).

Bost bitartekari nagusi hauez gain, gaur egun, badaude beste hainbat bitartekari: editoreak, lagunak eta komunikabideak. Editoreak dira ondoren beste bitartekari batzuek erabiliko dituzten materialak sustatu eta sortzen dituztenak. Bitartekari hauen ardua da kalitatezko produktuak argitaratzea, modu honetara, gainerako bitartekariak ere errazago burutuko dute liburuen aukeraketa. Komunikabideek ere garrantzia handia eduki behar dute literatur bitartekari moduan gaur egun, pisu handia duen tresna baita. Azkenik, lagunak arteko bitartekaritza dugu. Lagunek funtsezko zeregina dute irakurketa lanak gomendatzerako orduan, batez ere, nerabeak dira beraien gomendioekin bilduma edota genero zehatz baten arrakasta eragin dutenak. Berdinen arteko bitartekaritza hau, sarri ez da kontuan izaten, baina indar handia du (Equipo Peonza, 2001).

2.5. Corpusa

Askotan, hurrei zuzenduak dauden liburuez hitz egiten denean, liburu guztiak multzo bakar batean sailkatzen dira: HGL. Baina egun, liburu hauen ekoizpena asko handitu da eta mota askotako lanak biltzen dituen sistema artistiko bat sortu da (Colomer, 2009). Gaur egun dauden liburu kantitatearen artean, hurrei liburu eskaintza egoki bat egitea zaila izaten da. Horretarako, aurretik adituak sortu dituzten sailkapen edota kanonak har daitezke oinarri (Otegui, 2024).

Literatur lanen corpusak garrantzia handia du eta hainbat egoeretara moldatzeko gaitasuna eduki beharra du. Gainera, corpusak irakurleari bere nortasuna garatzeko aukera eman behar dio (Otegui, 2024). Helburua kalitatezko irakurketa eginez, pixkanaka-pixkanaka hobeto irakurtzea da. Irakurketa proposamen zailak egitea ekidin behar da. Irakurlearen gehiengoa ez bada gai irakurketa proposamen hori irakurtzeko, aukeratutako liburua, ez da egokia. Izan ere, hori gertatzen bada etsipenetik bertan behera uzteko aukera nagusitzen da. Horretaz gain, garrantzitsua da irakurleei ekarpenik egiten ez dieten liburuak ekiditea (Equipo Peonza, 2001).

Testuen corpusa hautatzeko ezaugarriak aldatu egin dira. Izan ere, beharrezkoa da bitartekariak testu literario bat haurren eskura utzi aurretik, haurraren *kultur kapitala* kontuan hartzea, hots, haurrak noraino ulertzen duen jakin, zer egin dezakeen ikusi eta zer esaten duen kontuan izan behar ditu (Lomas, 1996 *apud* Permach, 2022).

Edukiari dagokionez, ikasleek jaso behar dituzten ezagutzen funtsa aldatu egin da azken urteetan, ondorioz, irakatsi beharreko edukiak ez dira betikoak. Hori horrela eta gure gaira etorrita, testuen corpusa aukeratzeko irizpideak aldatu egin dira; ezinbestekotzat jotzen da literatur ikasketa prozesua martxan jarri aurretik, ikaslearen kultur kapitala kontuan hartzea, hau da, ikaslea noraino egin, esan eta uler dezakeen kontuan hartzea (Lomas, 1996).

Corpus on batek une eta irakurle motatara egokitzeko gaitasuna du. Corpus egoki batean ez dute zertan literatur lan onenek egon beharrik. Multzo horretan, beste hainbat liburu ere egon daitezke; hurrei errepikapenaren bidezko ikaskuntzak finkatzeko aukera ematen dietenak edota irakurleen garapena bermatzen dutenak. Helburu desberdinei erantzuteko liburu egokiak ezagutzeko aukera emango dien corpusak dira egokiak (Colomer, 2009).

2.6.Literatura eta sexismoa

Ikusi dugun moduan, eskola eta familia izan ohi dira haurrek literaturarekin duten lehenengo produktu kulturala. Gainera, haurren gaitasun kritikoa oraindik mugatua izaten dute eta irizpide kritiko askorik gabe, normalean informazio guztia xurgatzen dute. Horregatik, beharrezkoa da haurrek kontsumituko dituzten produktuak aurretik ikertzea. Izan ere, idazle zein ilustratzaileek kontziente edota inkontzienteki haur literaturaren bidez mundua nola ikusi eta ulertu behar duten azaltzeko erabiltzen dute eta autoreen lanek harreman zuzena dute beraien balio, bizipen eta ideologiarekin (Etxaniz et al., 2019).

Hala ere, aipatu beharra dago, garrantzitsua dela hezkidetzak irakurketa kritikoa sustatzea. Hau da, ikasleari testu bat egokia den ala ez bereizteko eta egilearen asmoa identifikatzeko beharrezkoak diren gaitasun kognitiboak garatzen laguntzea ezinbestekoa da (Fernandez, 2017).

Esan dezakegu, ipuin tradizional zein gaur egungo ipuinek, mundua ezagutzeko ikuspegi desberdinak eskaintzen dizkigutela. Interpretazio hori nagusiki sexista izan ohi da, izan ere, bertan agertu ohi dena bizi garen kultura eta ezarritako ordena sozialaren isla da. Gainera, literaturak sozializazioan duen funtzioetako bat gizon eta emakume izateko moduaren gaineko adibideak aurkeztea izaten da (Barragán, 1989).

la aurkezpenik behar ez duen arren, genero-estereotipo kontzeptuak (estereotipo sexual edo genero-rol gisa ere ezagunak), gizarteak norbanakoei sexuaren edo generoaren arabera esleitutako rol, jarrera, jokabide eta ezaugarriei egiten die erreferentzia, zeinak ezberdinak izan ohi diren gizon eta emakumeentzat (Carraza Estévez et al., 2008; Yubero et al., 2014)

Genero estereotipo kontzeptua, gizarteak norbanakoei sexuaren edo generoaren arabera esleitu zaien rol, jarrera, jokabide eta ezaugarriei egiten die erreferentzia. Hauek, ezberdinak dira gizon eta emakumeentzat (Carraza Estévez et al., 2008) eta emakumeen eta gizonen eraikuntza oso desberdina da (Turin, 1995). Urtxintxa eskolak argitaratu zuen liburuan (2007) mutilak aktiboak, azkarrak trebeak eta dinamiko moduan agertzen diren bitartean, neskek; pasiboak, garbiak, ederrak eta atseginak izaten dira.

Horretaz gain, literatur lanetako pertsonaiek egiten dituzten etxeko lanen banaketa eta zaintza lanetan eboluzio txiki bat egon den arren, emakumeak dira nagusi (Yubero, 2014 *apud* Otegui, 2023).

Literaturan emakume eta gizonen irudia aztertzeko, hainbat ikerketa egin dira. Horietako bat Etxaniz, Fernández eta Rodríguez (2019) autoreek egindakoa da. Ikerketa honetan, emakumearen irudia ikertu zuten euskal haur literatura modernoan eta 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera zein den azaldu zuten. Ikerketa honetan, hainbat ondorio sailkatu zituzten. Horietako bat, genero estereotipoen gainekoa da. Izan ere, euskal literaturan, gaur egun genero-estereotipoak sustatzen jarraitzen dutela aztertu zuten eta hauek erreproduzitzen diren bitartean, euskal HGLn ez dela eredu parekiderik eskainiko argi ikusi zuten. Liburu-etako pertsonaietan, indarra mutilekin eta edertasuna neskekin lotzen dela ikusi dute eta honek ez duela sexismoarekin amaitzen azpimarratu dute.

Zuzenean edota zeharka balioak transmititzen dira eta irakurleak liburuetan azaltzen diren rol sozialak egokitzat hartu izan ditu. Beraz, hainbat gizarte eragileek tresna desberdinak erabiliz, indarkeria sinbolikoaren erreproduzitaile bihurtzen dira. Hau, hezkidetzan eta berdintasunean oinarritzen den hezkuntzan aurrerapausoak emateko, oztopo izaten da (Fernandez, 2017). Izan ere, haur zein gazteek beren nortasuna eraikitzeke irakurri, ikasi, behatu eta esperimintatu egiten dutenez, estereotipo sexisten presentzia kaltegarria da (Aparicio, 2016).

Reizabalek (2015) argitaraturako ikerketa lanean, orain azalduko ditudan kontzeptu hauek argitzen ditu; *Genero aginduak* eraikuntza sozial dinamikoaren ondorio nagusi dira. Hau, une historiko jakin batean sexu bakoitzari egokitzen zaizkion ezaugarri psikosozialak dira eta genero-aginduen barnean, genero-rolak daude. *Genero-estereotipoak* emakume eta gizonen inguruan kultura edota jendarte batek duen iritzi eta usteei dagokie. Izan ere, sexu bakoitzari egokitzen zaizkion ezaugarri, rol edota gaitasun kognitiboek osatzen dituzte genero estereotipoak eta hauek, genero rolen banaketa justifikatzeko balio izaten dute. *Sexismoa* aldiz, norberaren sexuaren arabera esleitzen diren ezaugarri positibo eta diskriminatzaileei deitzen zaie.

Askotan, bitartekariak haurarentzat ipuina aukeratu behar dutenean, haurra neska edo mutila den izaten dute kontuan eta une horretatik hasten dira desberdintasunak egiten. Neskari printzesen gaineko istorioak kontatu edota ematen badizkiogu, ipuinean agertzen den printzesa zintzoa, garbia, ederra edota atseginarekin identifikatu nahiko du. Mutilei, aldiz, abenturazko istorioak ematen badizkiogu, irudimena bultzatu eta espazio handitik bidaiatzeko aukera ematen diogu. Guzti honek, haurren hasierako harremanetan eragin zuzena edukiko du eta ezberdintasunak handitu egingo dira (Urtxintxa, 2006).

Sexismoak emozioak adierazteko aukerak mugatzen ditu eta horrek desberdintasun ebolutiboak sortzen ditu erronka emozionaleri aurre egiteko. Horregatik, mutilek lehen haurtzaroan neskek baino arazo emozional gehiago edukitzen dituzte eta ondoren, desberdintasun hauek esanguratsuak izateari uzten diote, baina nerabegarotik aurrera berriro eraldatzen dira. Modu honetara, mutilei etsaitasuna eta haserrea azaleratzeko neskei baino aukera gehiago ematen zaie eta aldiz, neskak emozioen gainean hausnartu, besteen lekuan jarri eta tristura adierazteko aukera izaten duten heziketa

jasotzen dute (Díaz, 2009). Argi dago, haurrak gazteagoak direnean sentikorragoak direla estereotipo eta sexismoarekiko. Horregatik, HGL gizartearen aniztasuna islatu eta berdintasunerako aldaketa sustatzeko tresna izan behar du (Fernandez, 2017).

Fernandezek bere ikerketa lanean honela dio: “Gogoratu beharra dago, protagonista nagusia emakumea izateak ez duela berdintasuna ziurtatzen, ezta emakumeak tradizionalki gizonaren rola irudikatzen dituenen ere” (2017: 170). Gainera, ez zaio soilik protagonistari erreparatu behar, izan ere, beharrezkoa da irudiei, pertsonaia guztiei eta hitzei erreparatzea (Fernandez, 2017).

Argi dago, gaur egungo gizartea sexista dela, hau jakinda, ezinbestekoa da haurtzarotik ume zein nerabeek jasotzen dituzten generoaren gaineko mezuak identifikatu eta aztertzea. Horretaz gain, garrantzitsua da literaturan ere sexismoa eta parekidetasun hutsuneak identifikatu eta lantzea (Fernandez, 2017).

3.Lanaren diseinua

Ikerketa honetan, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetan agertzen diren gizon eta emakumeen irudiak, genero ikuspegitik sexismoa aztertuko dugu.

Izan ere, gaur egun berdintasuna lantzeko saiakera handia egiten bada ere, oraindik asko falta da egoera hori lortzeko. Ildo horretan, ezinbestekoa da ipuinek kontatzen dutena aztertzea, neska eta mutilen genero identitatearen eraikuntzan eragin dezaketelako, bai haien identitateari buruzko zalantzak sortuz edota beste zenbait jarrera naturalizatuz.

3.1.Helburuak, hipotesiak eta ikerketa galderak

Lan hau egiteko ezinbestekoa izan da hainbat helburu, hipotesi eta ikerketa galdera zehaztea. Izan ere, hauek abiapuntu izango dira gure ikerketa honetarako. Ikerketa honen helburu nagusia, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetan agertzen diren emakumearen eta gizonaren irudia genero ikuspegitik estereotipoak erreproduzitzen dituzten aztertzea.

Helburu zehatzak:

1-Bitartekariak adin tarte honetan zein liburu gomendatzen dituzten aztertzea eta bitartekari aipatuena zein diren ikustea.

2-Testuan eta ilustrazioetan, pertsonaien ezaugarri fisikoak eta psikologikoak aztertu eta pertsonaien nortasuna nolakoa den identifikatzea.

3-Egileen sexuak liburuak izate sexistarekin edo ez sexistarekin loturarik duen aztertzea.

Hipotesiak:

1-Haurren generoaren arabera, irakurketa ohiturak desberdinak izango dira.

2-Bitartekaria profesionala denean (eskola, liburutegia edo liburu denda), gomendatzen dituzten liburuek genero kontzientzia handiagoa erakusten dute.

3-Pertsonaien deskribapenek eta ilustrazioek genero estereotipoak betetze dituzte

4-Idazlea emakumezkoa denean genero estereotipoak ez dira betetzen eta aldiz, gizonezkoa denean bai.

Ikerketa galderak:

1-Zein generotako hurrek irakurtzen dute gehien?

2-Bitartekariak irakurketa bat gomendatzerako orduan, kontuan izaten dute liburu horrek helarazten dituen mezu sexistak?

3-Ilustrazioetan genero estereotipoak ageriago antzematen dira testuetan baino?

4-Idazlearen generoaren arabera, genero estereotipoak desagertzen dira ala iraunarazten dira?

3.2.Ikerkuntza metodoa

Ikerketa hau egiteko erabili dudan metodologia kualitatiboa izan da. Metodologia honen ezaugarrien artean; deskribatzailea, induktiboa, datuetatik hurbila eta orokor ezina da. Kantitateari baino, garrantzia gehiago ematen zaio kalitateari. Horretaz gain, ikertzailea den pertsonak ere ikerketan sartzeko aukera du eta parte hartzaileekin

batera jarduteko aukera du. Metodologia honen oinarrian, gizarte-taldeetan dauden beharrak daude eta bertatik hasten da ikerketa. Ikerketa ireki moduan ere izendatu izan dira, izan ere, ikerketak aurrera egin ahala, aldatu egin dira (Lukas eta Santiago, 2016).

Ikerkuntza metodo kualitatiboa erabiltzeko, kontuan hartu behar diren hainbat alderdi daude. Análisi kualitatiboetan, ebaluatzaileak emaitzak eta ondorioak argitaratzen ditu eta ez du prozedura zehatzik jarraitu behar. Kasu honetan, hitzez adierazitako datuak izango dira nagusi eta datu hauek erregistratzeko hainbat modu daude. Egia da, batzuetan ikerketa metodo honekin askotariko informazioa bildu daitekeela eta agian, hori arazo bilakatu daiteke. Azkenik, metodo honek ez du prozesu linealik, prozesu hau ziklikoa da eta interaktiboa (Lukas eta Santiago, 2016).

Kasu honetan, galdetegia erabili da datuak jasotzeko tresna moduan. Tresna honen helburu nagusia, iritziak eta ikuspuntuak aztertzea eta kontrastatzea da. Hezkuntzan zein beste hainbat esparrutan ebaluaziorako informazioa eskuratzeko, galdera sorta teknika erabilienak izan ohi da. Teknika honek, hainbat abantaila ditu. Izan ere, ez da beharrezkoa galdetegia beteko duten pertsonak ebaluazioa zertan datzan jakitea, gainera, subjektu multzo zabalarekin erabili daiteke (Lukas eta Santiago, 2016).

Beraz, lan honetan datuak eskuratzeko galdetegia erabili dut (I.eranskina) eta honako hau ebaluazio kualitatiboan oinarritzen da. Sortutako galdetegiaren bitartez bi datu nagusi bildu nahi izan ditugu: batetik, ea zein den euskaraz irakurri duten azken liburua eta bestetik, ea nork gomendatu dien liburu hori. Bi galdera hauekin, liburuen zerrenda osatu eta zein bitartekari diren nagusi ikusteko balio izango digu.

3.3. Lagina

Esan bezala, 10-12 urte bitarteko haurrak izan dira ikerketa honen oinarri. Zehazki, guztira 98 hurrek hartu dute parte eta haur hauek adin tarte horietan irakurtzen dituzten liburuak aztertuko dira.

Parte hartzaileak Gipuzkoako 20.647 biztanle (Eustat, 2023) dituen herri batean kokatzen dira. Herri honetan, hiru eskola publiko daude eta zehazki, eskola bateko haurrak izan dira parte hartzaileak. Bi galderez osatutako galdetegi labur bat prestatu zen (I.eranskina) eta egun batean bertara joan, ikerketaren nondik norakoak azaldu eta

galdetegia eman zitzaion. Ikusi daitekeen moduan, lehenengo galdera beraiek euskaraz irakurritako liburuen gainekoa da eta bigarren galderak bitartekariari egin nahi die erreferentzia. Modu honetara, ikerketarako behar dugun informazioa lortzeko aukera edukiko dugu.

Ikastetxe honetan, garrantzia berezia eman nahi izaten diote irakurtzeari. Geletan liburuak edukitzeaz gain, eskolan liburuz betetako liburutegi bat dute eta edonork du bertara joateko aukera. Horretaz gain, irakurketa sustatzeko hainbat plan dituzte. Horietako bat, irakur lagunarena da, eta dinamika honetan, bosgarren mailako ikasleak, ipuin bat aukeratu eta lehenengo mailan dauden haurrengana joaten dira elkarrekin liburuak irakurtzera.

Lehenengo mailako haurrekin irakurtzeko liburuen aukeraketarako, irakasleak kontuan izateko hainbat ezaugarri eduki behar dituztela aipatzen die hurrei; ipuin laburrak izatea, ilustrazioak edukitzea, letra tamaina egokia edukitzea... Hainbat irizpide kontuan izanda, bosgarren mailako hurrek norberaren gustuaren arabera, ikastetxeko liburutegitik beraiek nahi dituzten ipuinak aukeratzen dituzte ikastetxeko haur txikienei irakurtzeko.

Beste dinamiketako bat, maleta ibiltaria da, hau, lehen hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloan egiten dute. Dinamika honetan, ikasleek liburutegiko liburu bat aukeratu eta maleta batean sartuta, etxera eramaten dute. Helburua, etxekoekin batera irakurketa sustatzea da gainera, irakurri ondoren fitxa labur bat betetzen dute liburuaren balorazio moduan eta ondoren, fitxa horren laguntzaz, haurrak gelakideei liburuaren hainbat ezaugarri azaltzen ditu.

3.4.Aldagaiak

Esan bezala, guztira ikerketa honetan, 98 hurrek hartu dute parte eta liburu asko errepikatuak izan dira. Guztira 54 liburu zerrendatu ditugu (II. eranskina). Ikerketa honetarako corpusa sortzeko, hainbat aldagai zehaztu dira. Izan ere, lan honetan parte hartu duten hurrek irakurritako liburuak mota askotakoak izan dira.

Lan honetarako hainbat aldagai hartu dira kontuan, ikertu diren liburuak hainbat ezaugarri bete behar dituzte:

1- Euskarazko eleberriak.

2-2005etik 2023 urtera argitaratu diren liburuak.

3-Sagetako liburu bat baina gehiago badaude, liburu bakarra hartuko da.

Aldagai hauek kontuan hartuta, azkenean, liburuen corpusa 17 liburuek (III.eranskina) osatu dute. Corpus honen irakurleak guztira, 34 ikasle dira. Beraz, esan dezakegu, ikerketa honetan 34 haurrek irakurri dituzten 17 liburu aztertuko direla.

3.5.Datuak aztertzeko tresna

Behin galdetegia egin eta datu guztiak mahai gainean edukita, datu horiek aztertzeko tresna behar izan dugu. Horretarako, ezinbestekoa izan da adituek aurretik egin dituzten ikerketak aztertzea, izan ere erreferentzia nagusi bihurtu dira lan honetarako.

Kasu honetan, Eneko Fernandezek (2017) bere ikerketa burutzeko sortu zuen fitxa hartuko dugu oinarri nagusitzat. Autore honek, 1980ko hamarkada eta gaur egungo euskal haur literaturan emakumearen irudia aztertu zuen. Fernandezek (2017) erabili zuen ikerketarako tresna egokituko da ikerketa lan honetara, izan ere, lan honen helburu eta hipotesiak desberdinak dira eta tresnaren helburua, aurretik aipatutako helburuak erantzutea da. Ikerketa lan horri, Urtxintxak argitaratu zuen “ipuinak ez sexistak izateko gida” (2006) izeneko liburuan agertzen diren hainbat aldagai gehitu zaizkio.

Fitxa honek atal desberdinak izango ditu, guztira zortzi ataletan banatzen da fitxa hau (IV.eranskina). Lehenengo atalak, liburuaren informazio orokorrari dagokio. Bigarren eta hirugarren atalak, liburuko pertsonaiei egiten die erreferentzia, pertsonaia nagusiei zein bestelako pertsonaiei.

Modu honetara, liburuan agertzen diren emakume eta gizonen presentzia ikusiko da. Laugarren atalak, idazleak pertsonaiaren deskribapenaren gaineko informazioa nolako den jasoko du. Ezaugarri fisikoak, pertsonaiaren izaerak eta trebetasunak kontuan hartuz. Bosgarren, seigarren eta zazpigarren atalek; Ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta pertsonaien trebetasunak modu zabalago batean agertuko dira. Azkenik, zortzigarren atalak, ilustrazioek eta testuek estereotipoak erreproduzitzen dituzten aztertuko du.

4.Emaitzak

Atal hau, hiru zatitan dago banatua; lehenengo atalean, galdetegi kualitatiboan ateratako emaitzak azalduko dira. Bertan, gehien irakurri diren liburuen emaitzak aztertu eta bitartekariak adin tarte hauetan duten presentzia zein den ikusteko aukera edukiko dugu. Bitartekariak duten eragina aztertzeko, ikasleek irakurri dituzten liburuak nork gomendatuak izan diren identifikatu dugu. Modu honetara, zein bitartekariren bidez heldu diren liburu horretara jakingo dugu.

Bigarren atalean aldiz, corpuseko liburuen irakurketa analitikoa egin ondoren, ateratako emaitzak agertuko dira. Atal honetan: hurrek emakume edo gizon idazleen liburuak irakurtzen dituzten ikusi, liburuak argitaratu diren urteari erreparatu eta pertsonaia nagusia zein bestelako pertsonaien ezaugarriak aztertu dira.

Azkenik, hirugarren atalean, idazlearen eta irakurlearen generoari erreparatuko diogu ondoren, bien lotura ikusteko eta bitartekariak, autorearen generoa kontuan izan da, zein liburu gomendatzen dituzten ikertuko da.

4.1.Galdetegi kualitatiboan ateratako emaitzak

Liburua, ikaslearen generoa eta bitartekaria

Aurretik esan bezala, galdetegi kualitatiboan 98 hurrek hartu zuten parte. Atal honetan, laburpen orokor bat egin da eta emaitza absolutuak eranskinetan gehitu dira (V.eranskina:1.taula).

Galdetegi honetan, LH 3.zikloko hurrek 54 liburu aipatu zituzten eta aipatuena izan den liburua *Uda bat Senegalen* izan da. Liburu hau, irakasleak hurrei etxean irakurtzeko eskatu dien irakurketa da. Horretaz gain, gehien irakurri diren gainerako liburuak; *Onin altxorraren uhartea*, *Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa*, *Onin arimen gaua* eta *Onin eta komiki madarikatua* izan dira.

2.taula:

Gehien irakurri diren liburuak

Izenburua	Idazlea	Argitalpen urtea	Irakurle kopurua
Uda bat Senegalen	Lur Gallastegi	2016	10
Onin altxorren uhartea	Ibon Martin	2018	5
Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa	Roberto Santiago	2021	4
Onin arimen gaua	Ibon Martin	2022	4
Onin eta komiki madarikatua	Ibon Martin	2023	4

Bestalde azpimarratzekoa da sagek eduki duten pisua (ik.3.taula); 19 saga ikus daitezke eta guztira, saga baten parte diren 41 liburu irakurri dituzte. Gehien irakurtzen diren sagak: *Onin* (8 liburu), *Gizajo baten egunerokoa* (5 liburu), *Nur* (4 liburu) eta *Futboleroak* (4 liburu) dira.

3.taula:

Irakurri diren sagak

	Bildumen izenak	Zenbat liburu	Irakurle kopurua
1	Onin	8	21
2	Gizajo baten egunkaria	5	10
3	Futboleroak	4	9
4	Nur	4	6
5	Go!azen	4	6
6	Cube arts	2	3
7	Txano eta Oscar	2	2
8	Astrojokoak Minotauroen misterioa	1	1
9	Isaline	1	1
10	Jara	1	1
11	Kika supersorgina	1	1
12	Pirata eskola	1	1
13	Samurai vs ninja urrezko arrautzagatik lehiak	1	1
14	Xola	1	1
15	Zonbien egunerokoa Muuu-gida Sendagai bila!	1	1
16	Zuhara itsasoaren deia	1	1
17	Daniela pirata eta ziklope maltzula	1	1
18	Amanda Black	1	1
19	Gauerdiko begiak	1	1

Galdetegi kualitatiboan, jarritako bigarren galdera bitartekarien gainekoa da. Izan ere, lan honen helburuetako bat 10-11 urte bitarte dituzten haurretan bitartekariak duten eragina ikustea da. Horretarako, galdetegian, haurrek euskaraz irakurri duten azken liburua jartzeaz gain, liburu hori nork gomendatu dien zehaztu behar zuten. Guztira, erreferentziako lau agente mahai gaineratu ziren: familia, ikastetxea, lagunak eta liburutegia (ik. 4taula). Horretaz gain, haur askok inork gomendatu gabe hautatutako liburuak direla azaldu zuten, Oteguik (2023) bere ikerketan aipatu zuen, balitekeela, inoren liburu gomendiorik jaso ez duten haurrek inkontzienteki bitartekaritza jaso izana (liburu-dendetako leihoan, norbait liburu hori irakurtzen ikustea...). Hala ere, erreferentzialtasun handiena duten bitartekariak kasu honetan, lagunak (30) eta familia (27) dira.

4.taula

Liburuen gomendioak

Nork gomendatu die liburua	Haur kopurua	Portzeintaia
Lagunak	30	31%
Familiak	27	28%
Ikastetxeak	18	18%
Liburutegiak	6	6%
Inork	17	17%
Guztira	98	

4.2.Haurren irakurgaien genero-analisisa

Liburua argitaratu den urtea eta idazlearen generoa

Metodologian aipatu den bezala, liburuen corpus bat egiteko garaian, hiru aldagai izan dira kontuan. Hiru ezaugarri hauek oinarri hartuta 17 liburuko lagin bat ikertu da (VI.eranskina: 5.tuala). Lagin honetan, ikasleen %35ak emandako informazioa izango da aintzat.

Liburuak, hiru multzotan izan dira banatuak: lehenengo multzoa, 2005etik 2013 urtera arte argitaratu diren liburuek osatzen dute, bigarren multzoan, 2016tik 2019ra argitaratu diren lanek eta azken multzoa, 2020tik 2023ra arteko liburuek.

Taula honetan (iku.6.taula), ikusi dezakegu aztertutako liburuen %35 emakumezko autoreek idatzitako liburuak direla eta %65a gizonezkoek idatzitakoak. Esan bezala,

hiru multzotan banatu da aukeratutako corpora eta liburu kopuru hauek irakurri dira urte bakoitzean; lehenengo eta bigarren multzoetan bost liburu ditugu eta hirugarrenean, zazpi.

6.taula:

Liburua argitaratu den urtea eta idazlearen generoa

Urtea	Liburu kopurua	Emakumea	Gizona
2005	2	1	1
2006	1		1
2008	1		1
2013	1	1	
2016	2	1	1
2017	1		1
2018	1		1
2019	1	1	
2020	1	1	
2021	2	1	1
2022	1		1
2023	3		3
Guztira	17	6	11
Portzeintaia		35%	65%

Pertsonaiak

Lan honen lehenengo helburua abiapuntutzat hartuz, atal honen lana, pertsonaien ezaugarri fisiko, psikologiko zein nortasunak identifikatzea da, bai testuan eta bai, ilustrazioetan. Horretarako, aukeratutako corpuseko liburuetan, azaltzen diren pertsonaien generoa ikertu nahi izan dugu. Ikus dezakegun moduan (ik.7.taula), lehenengo multzoan 2005-2013 bitarteko lanetan, emakume protagonistak 4 dira (80%). Bigarren multzoan 2016tik-2019ko liburuetan 3 (%60) emakumezko protagonista daude eta azken multzoan, 2020tik 2023 urteetan kokatzen diren liburuetan, neska protagonistak 3 (%57) dira.

7.taula:

Pertsonaia nagusiak

	2005-2013		2016-2019		2020-2023	
	Bakarrik	Taldean	Bakarrik	Taldean	Bakarrik	Taldean
Neska/Emakumea	4		3		3	
Mutila/Gizona	1		1		3	1

Neska-mutilak				1			
Guztira	5		4	1	6	1	17

Eleberrietan agertzen diren gainerako pertsonaien datuak, aldiz, hauek dira (ik. 8.taula): protagonistak ez diren pertsonaien gehiengoa emakumezkoa da (14) eta igarri den moduan, neska-mutil taldeak ere presentzia handia dute (13).

8.taula:

Beste pertsonaiak

	2005-2013		2016-2019		2020-2023		Guztira
	Bakarrik	Taldean	Bakarrik	Taldean	Bakarrik	Taldean	
Neska/Emakumea	4		5		5		14
Mutila/Gizona	4		3		3		10
Neska-mutilak		3		3		7	13

Hurrengo atalean, autoreek pertsonaien gaineko deskribapen fisiko, psikologiko eta gaitasun kopuruak jaso nahi dira. Ikusi daitekeen moduan (ik.9.taula), hiru multzoetan pisu handiena duen ezaugarria trebetasunen eta gaitasunen gaineko deskribapenak dira. Guztira, mutilen trebetasun eta gaitasunen deskribapenak 14 pertsonaietan egiten dira eta emakumezkoen gaitasunen deskribapenak, aldiz, 11 kasutan irakurri daitezke.

Bestalde, azken multzoetan kokatzen diren liburuetan, (ik.9.taula) ezaugarri fisikoen gaineko deskribapenak nagusi direla antzeman daiteke: emakumezkoetan, 7 liburuetatik 5 liburuetan agertzen da deskribapen hau, eta mutilen kasuan, 7 liburuetatik 3 pertsonaietan.

9.taula:

Testuan idazleak egiten dituen deskribapenak

	2005-2013		2016-2019		2020-2023		Guztira	
	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna
N_ezaugarri fisiko	5	1	5	2	7	5	17	8
M_ezaugarri fisiko	5	1	5		7	3	17	4
N_ezaugarri psikologiko	5		5	3	7	1	17	4
M_ezaugarri psikologiko	5		5	2	7	2	17	4
N_trebetasunak/gaitasunak	5	4	5	3	7	4	17	11
M_trebetasunak/gaitasunak	5	3	5	5	7	6	17	14

Pertsonaien ezaugarri fisikoak

Liburuen pertsonaia nagusietan zein bestelako pertsonaietan, hainbat ezaugarri fisiko nabarmentzen dira. Corpus honetan, bi datu nabarmendu ditzakegu (ik.10.taula); alde batetik, mutil indartsuak diren pertsonaiak, emakume indartsuak baino gehiago direla (17 liburuetatik, 12 dira gizon indartsuak eta 4 neska indartsuak) eta neska ederren presentzia handiagoa dela mutilena baino (17 liburuetatik, 11 dira neska ederrak eta 3 mutil ederrak).

Bestalde, corpus honetan, ez da pertsonaia itsusirik ageri eta liburu guztietatik, lehenengo multzoan ahula den pertsonaia bakarra dago.

10.taula:

Ezaugarri fisikoak

	2005-2013		2016-2019		2020-2023		Guztira	
	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna
N_indartsuak	5		5	1	7	3	17	4
M_indartsuak	5	3	5	4	7	5	17	12
N_ahulak	5		5		7		17	
M_ahulak	5	1	5		7		17	1
N_ederrak	5	3	5	4	7	4	17	11
M_ederrak	5	2	5	1	7	1	17	3
N_itsusiak	5		5		7		17	
M_itsusiak	5		5		7		17	

Pertsonaien ezaugarri psikologikoak

Liburuak aztertzerako orduan, pertsonaien ezaugarri psikologikoen informazio asko ematen dituzte. Aurreko taulan (ik.9.taula) ikusi dugun moduan, idazleek pertsonaien gaineko deskribapen psikologikoak ez dira asko izan, 17 liburuetatik bi generoen kasuan 4 deskribapen egin dira, guztira 8. Baina liburuetakako istorioetan zehar, hainbat ezaugarri psikologiko antzeman daitezke. Nahiz eta atal honetan, datu nabarmenenak aipatuko diren, datu guztiak VII.eranskina: 11.taulan aurkituko dituzue.

Corpuseko hiru multzoetan, neska sentikorrak nabarmentzen dira (lehenengo multzoan, 5 liburuetatik 5 neska dira sentikorrak; bigarren multzoan, 5 liburuetatik 4 neska; eta hirugarren multzoan, 7 liburuetatik 5 neska) guztira, 19 neska sentikor identifika ditzakegu. Hau antzemateko, hainbat ezaugarri identifikatu ditugu. Kasu

hauetan, idazleak ez du esplizituki pertsonaiak sentikorrak direla esan. Baina hala ere, istorioan zehar hainbat jokabiderek, sentikortasun handiagoa duten pertsonaiak nabarmendu dira. Sentikortasuna duten pertsonaietan hainbat ezaugarri identifikatu ditugu: gainerakoekiko enpatia edukitzea, gainerakoez arduratzea, negar egitea, sentimenduen gainean hitz egitea edota hausnartzea, objektuekiko atxikimendu simbolikoa edukitzea, gainerakoak ondo zaintzea eta errespetatzea...

Horretaz gain, hiru multzoak kontuan hartzen baditugu, hainbat pertsonaia abentura zaleak direla ikusi dezakegu. Ezaugarri hau da generoen artean oreka gehiena duena, izan ere, 17 liburuetatik 11 dira neska abenturazaleak eta mutilak aldiz, 12. Abentura zaleak diren pertsonaiak, kasu batzuetan, idazleak istorioan zehar, pertsonaiaren izaera moduan ezaugarri zehatz hau duela aipatu du eta beste kasuetan, hainbat jokabideri esker lortu dugu informazio hori. Abentura zaleak diren pertsonaiak: bizipen berriak bizi nahi dituzte, ezezaguna dena ezagutu nahi dute, misterioen atzetik abiatzen dira, altxorraren bila joaten dira, debekatutakoa egin nahi dute...

Pertsonaia ausartei erreparatuz gero, ausartak diren mutilen kopurua handiagoa da neskena baino, mutilen kasuan, 17 liburuetatik 12 mutil ausart daude eta nesken kasuan aldiz 8. Ezaugarri honek, hirugarren multzoan nagusitasun handiagoa hartzen du; 7 liburuetatik 6 mutil eta 5 neska dira ausartak. Pertsonaiak ausartak direnean; egoera zail baten aurrean lehen pausoa eman edota beldurrik azaleratzen ez duten pertsonaiak izan dira. Horretaz gain, kasu batzuetan, idazlea izan da "ausarta" hitza erabili duena pertsonaia bat deskribatzerakoan.

Azkenengo zutabearen (2020-2023 bitarteko liburuak), pertsonaia jakintsuaren ezaugarria mutilen kasuan altua dela ikusi daiteke. Izan ere, 7 liburuetan 6 dira mutil jakintsuak eta 3 neskak. Berbera gertatzen da pertsonaia lehiakorrek, hemen ere, 7 liburuetatik 6 dira mutil lehiakorrak eta 3 neskak. Hala ere, hiru multzoak kontuan hartuz gero, ezaugarri hau desberdin azaldu da neska eta mutilen kasuan. Izan ere, guztira 17 liburuetatik 5 neska lehiakor agertzen dira eta horietatik 2k jarrera jeloskorrak dituzte. Hau da, mutil bat gustuko dute eta beste neska batekiko lehiakor ageri dira. Mutilen kasuan aldiz, 17 mutil lehiakor daude eta guztiak txapelketa baten inguruan sortzen diren jarrera lehiakorrak dituzte. Azkenik, corpus honetan, neska

harrorik ez da antzeman; mutiletan, aldiz, 6 mutil harro ikusi daitezke (zehaztasunetarako jo eranskinetako 11.taulara).

Pertsonaien nortasuna

Atal honetan, pertsonaia guztien nortasunak azalduko dira, eta informazio honekin, pertsonaien jarrerak nolakoak diren ezagutuko ditugu. Datu hauek, 12.taulatik ateratakoak dira, beraz zehaztasun handiagoak nahi izanez gero, ikusi 12.taula. Lehenik eta behin, bi datu azpimarratu nahi nituzke. Lehenengo ezaugarria, erabakiak hartzen dituzten pertsonaien gainekoa da, taulan ikusi dezakegun moduan, 17 liburuetatik 13 gizonek dute erabakiak hartzeko joera, aldiz, 5 pertsonaia dira erabakiak hartzen dituzten emakumeak.

Aipagarria den beste ezaugarrietako bat, laguntzeko eta entzuteko prest dauden pertsonaien gainekoa da. Kasu honetan, alderantziz gertatzen da; 17 liburuetatik, 13 emakume dira laguntzeko eta entzuteko prestutasuna dutenak. 2020-2023 urte bitarteko liburuen multzoan ikusi dezakegu zifra altuena 7 liburuetatik laguntzeko prest dauden emakumezko pertsonaiak, 6 direla. Hala ere, datu honetan bi perfil desberdin antzeman daitezke emakume eta nesken pertsonaien artean. Liburuetan, ama edo amonaren pertsonaia agertu denean, bere alaba edo semea asko zaintzen duela ageri da. Izan ere, kasu hauetan, emakumea kezkatua dago haurraren osasunarengatik, maitasun istorioengatik, edota zoriontasunarengatik eta haurrari entzuteko eta laguntzeko prestutasun handia du. Bestalde, haurra neska den kasuan, pertsonaia hauek; nesken artean entzuten dira, lagunei laguntzen die, gainerakoen kezkak konpontzeko prestutasuna dute, taldeari laguntzen die...

Aldiz, 5 mutil dira ezaugarri hau erakusten dutenak. Guraso moduan, aitaren presentzia ez da nabarmena izan, kasu bakar batean ageri da haurrarekiko duen ardura eta zaintza. Gainerako 4 mutilek; zaila den egoera batean laguntzeko prest daude eta lagun talde osoaren onerako, laguntzeko prestutasuna erakutsi dute.

Horretaz gain, indarkeriaren erabilera, gizonezkoen kopurua (9) altuagoa da emakumezkoena (2) baino. Ezaugarri hau ere ez da berdina ikusi bi generoen artean. Emakumeek bi kasuetan erabili dute indarkeria eta biak fantasia eta fikziozko liburu bateko testuinguruan kokatzen dira eta indarkeria defentsa moduan erabiltzen dute.

Aldiz, gizonen kasuan ez da hori kasu guztietan gertatzen, pertsonaia hauek; elkarren artean haserretu direlako borrokatu dira, beraien bikotekidea jo dute, edota gerretan borrokan dabilzan soldaduak dira.

12.taula:

Nortasuna

	2005-2013		2016-2019		2020-2023		Guztira	
	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna
N_salbatzailea/konpontzailea/eroia	5	2	5	2	7		17	4
M_salbatzailea/konpontzailea/eroia	5	1	5	5	7	3	17	9
N_arazoak gairatzen ditu	5		5	2	7	3	17	5
M_arazoak konpontzen ditu	5	2	5	2	7	4	17	8
N_menpekotasuna	5	1	5	2	7		17	3
M_menpekotasuna	5		5	1	7		17	1
N_autonomia	5	1	5		7		17	1
M_autonomia	5	2	5	2	7		17	4
N_erabakiak hartzen ditu	5	1	5	1	7	3	17	5
M_erabakiak hartzen ditu	5	2	5	5	7	6	17	13
N_Indarkeriaren erabilera	5	1	5		7	1	17	2
M_Indarkeriaren erabilera	5	3	5	3	7	3	17	9
N_laguntzeko/entzuteko prest	5	5	5	2	7	6	17	13
M_laguntzeko/entzuteko prest	5	2	5	2	7	1	17	5

Ilustrazioa eta testua

Ezinbestekoa da ikerketa honetarako liburuak bere osotasunean ulertu eta hartzea. Horregatik, garrantzitsua da testuari erreparatzeaz gain, ilustrazioek ematen duten informazioa jasotzea. Horretarako, taula hau osatu da (ikus.13.taula) liburu guztiekin. Bertan, ea testu eta irudietan estereotipoak erreproduzitzen diren ikusiko ditugu.

Taula hau egiteko garaian, aurretik aipatu diren ezaugarri guztiak hartu dira aintzat eta informazio horren baitan osatu da taula. Beraz, baliteke, taula hau beste ezaugarri batzuen baitan sortzen bada, datuak aldatzea.

13.taula:

Irudiak eta ilustrazioak

	200-2013	2016-2019	2020-2023	Guztira
Testuak eta ilustrazioek ez dituzte genero estereotipoak erreproduzitzen		1		1
Testuak eta ilustrazioek genero estereotipoak betetzen dituzte	2	3	2	7
Testuak ez ditu genero estereotipoak erreproduzitzen	2	1	2	5

baina ilustrazioek bai				
Testuak genero estereotipoak erreproduzitzen ditu eta irudiek ez	1		2	3
Testuak genero estereotipoak erreproduzitzen ditu (ez du ilustraziorik)			1	1
Testuak ez ditu genero estereotipoak erreproduzitzen (ez du ilustraziorik)				

Taula honetan (13.taula), ikusi dezakegu liburu bakar bat dela irudi eta testuan estereotiporik betetzen ez duena. Liburu honen izenburua, *Uda bat Senegalen* da, esan bezala, liburu hau irakasleak hurrei etxean irakurtzeko eskatu dien irakurketa da. Liburu honetako protagonista Garazi da eta bere ahizpa Izaro. Egun batean, aitak alabei, udara Senegalen igaroko dutela esaten die, aita erizainak bertako ospitale batean laguntzen duen bitartean. Senegalera joaten direnean hasten da abentura, aitak erizain moduan egiten du lan, Izarok Senegaleko olatu handiak surfeatzen pasatzen du egun osoa eta Garazik azokan lagun bat egiten du.

Esan bezala, liburu honetan, ez dira estereotipoak erreproduzitzen. Aita guraso moduan, asko arduratzen da bere bi alabez eta ondo zaintzen dituela antzematen da. Izan ere, aita alaben nahi eta beharrak entzuten ditu eta laguntzeko prest agertzen da. Guztira, liburu honetan, 14 ilustrazio agertzen dira, horien artean, paisaiak eta pertsonaiak daude eta ez dira genero estereotipoak antzeman.



1.irudia



2.irudia

Lehenengo irudian, Izaro eta Garazi gosaltzen ari diren bitartean, aita sukaldean gosaria prestatzen ari da. Bigarren argazkian, aldiz, etxeko sofan daude erizaina den aitaren lankide eta laguna da eta Senegaleko argazkiak erakusten ari da. Ikusi dezakegun moduan, gorputzek ez dute estereotipo nabarmenik jarraitzen, hau da, neskengan ez

da bereziki gorputz fin, eder eta argalik irudikatu eta gizonetan ez da gizon handi eta indartsurik ageri. Datu altuena, aldiz (iku.13.taula), testuak eta ilustrazioek genero estereotipoak betetzen dituztenen liburuak (6) dute. Bestalde, badira 5 liburu idazleak testuan estereotiporik adierazi ez arren, ilustrazioetan genero estereotipo horiek ikusi daitezkeenak. Horietako bat, *Onin altxorraren uhartea* (2018) da. Liburu honetan, idazleak ez ditu estereotipoak erreproduzitzen, baina ilustrazioetan ez da gauza berdina gertatzen. Izan ere, emakume eta gizonen irudietan estereotipo zehatzak ikusi daitezke.



3.irudia



4.irudia

Ikusi dezakegun moduan, lehenengo irudian Jaione izena duen irakaslearen gorputza, gorputz argala da eta oso gerri fina du, horretaz gain, edertasunaren kanona betez, pertsonaia hau makilatuta dago. Laugarren irudian, Onin eta itsasontziko kapitaina, Aimarri (Oninen laguna), itsasontzira sartzen laguntzen ari dira. Bertan, kapitaina gizon heldu bat dela ikusten da, bizar zuria eta ahoan pipa bat du. Liburu honetan, agertzen diren 3 gizonak handiak eta lodiak edota indartsuak dira eta aldiz, emakumeak gorputz meheak dituzte eta ederrak dira.

4.3. Idazleen eta ikasleen generoaren arteko lotura

Behin atal guztiak ikusita eta emaitza guztiak azalduta. Hirugarren helburuari helduko diogu, helburu hau, egileen sexuak liburuen izate sexistarekin edo ez sexistarik loturaren gainekoa da. Esan bezala, *Uda bat Senegalen* (2016) liburua da genero estereotiporik betetzen ez duena eta liburu honen egilea, Lur Gallastegi da.

Aztertzen ari garen corpusak 17 liburu ditu, liburu horietatik 11 gizonezkoek idatzitako liburuak dira eta 6 emakumezkoak idatzitakoak (iku. 14.taula). Hala ere, nahiz eta emakumezkoak idatzitako 6 liburu eduki, guztira, lau emakume egile dira. Izan ere, corpus honetan bi autore berberak idatzitako bi liburu daude. Beraz, corpus hau osatzen duten 17 liburuetatik 4 emakume idazle daudela esan dezakegu.

14.taula:

Idazleen generoa

Emakumeak diren idazleak

	Izenburua	Egilea
1	Zuhara itsasoaren deia	Amaia Telleria
2	Go!azen Eiderren egunerkoa	Jasone Osoro
3	Jara bikiak eta bikoteak	Jasone Osoro
4	Itsas azpiko sekretua	Lur Gallastegi
5	Uda bat Senegalen	Lur Gallastegi
6	Nur denboraren liburua	Toti Martínez de Lezea

Gizonak diren idazleak

	Izenburua	Egilea
1	Basamortuan galduta	Christian Jolibois
2	Gauerdiko begiak itzalik gabeko izakiak	Daniel Hernández
3	Onin altxorraren uhartea	Ibon Martin
4	Izaroko altxorra	Iñaki Frieria
5	Amanda Black galdutako amuletoa	Juan Gomez
6	Txano eta Oscar begiak zeruan	Julio Santos
7	Munduari itzulia 80 egunetan	Julio Verne
8	Kika supersorgina eta piratak	Knister
9	Astrojokoak Minotauroen misterioa	Leo Bican
10	Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa	Roberto Santiago
11	Pirata eskola erregina urdina	Steve Stvenson

Galdetegi kualitatiboan ateratako emaitzak kontuan hartzen baditugu, nesken artean irakurriena izan den liburua *Onin eta komiki madarikatua izan da* (4 irakurle) eta mutilen kasuan, *Uda bat Senegalen* (7 irakurle) liburua. Hala ere, genero honetako hurrek gehien irakurri duten liburua aurretik esan bezala, irakasleak haur guztiei irakurtzeko eskatu dien irakurketa da eta mutilak izan dira liburu hori aipatu dutenen gehiengoa. Irakasleak agindutako liburu horretaz gain, mutilek gehien irakurri duten liburua *Onin arimen gaua* (4 irakurle) da. Beraz, ikusi dezakegu bi generoen artean gehien irakurritako liburuen egilea gizonezkoa eta berbera dela, Ibon Martin.

Bestalde, ikerketa honetan erabili den corpora aintzat hartzen badugu, (VI.eranskina:2.taula), ikus dezakegu 34 hurrek aipaturako liburuak aztertu ditugula. Guztira, 17 mutil eta 17 neskek aipaturako liburuak izan dira. Orain, irakurlearen generoak eta idazlearenak duten harremanaren emaitzak ditugu. Ikusi dezakegun moduan, (iku. 15.taula) kasu honetan, ez dago nabarmentzen den daturik.

15.taula:

Idazlea eta irakurlearen generoa

	Haur kopurua
Idazlea eta irakurlea mutila	8
Idazlea eta irakurlea neska	8
Idazlea mutila eta irakurlea neska	9
Idazlea neska eta irakurlea mutila	9
Gutira	34

Azken tula honetan, (iku.16.taula) bitartekariak gomendatu dituzten liburuak aztertu eta bitartekari bakoitzak zein generotako idazleak gomendatzen dituen ikusi daiteke. Ikastetxeak 13 aldiz gomendatu du emakumeek idatzitako libururen bat. Familiak egilea gizonezkoa den 8 liburu gomendatu ditu. Horretaz gain, ikus dezakegu (iku.16.taula), inork gomendatu gabe irakurri dituzten liburuetan, gizonezko egileak direla nagusi (5).

16.taula:

Bitartekariak gomendatutako liburuen egilearen generoa

Zein bitartekariak gomendatu ditu egilea emakumeak diren liburuak?

Laguna	1
Familia	2
Ikastetxea	13
Liburutegia	0

Zein bitartekariak gomendatu ditu egilea gizonak diren liburuak?

Laguna	2
Familia	8
Ikastetxea	1
Liburutegia	1

Inork gomendatu gabe irakurritako liburuen idazlearen sexua

Emakumea	1
Gizona	5

5.Ondorioak

Atal honetan, ikerketan ateratako ondorioak aipatuko dira eta, horretarako, ezinbestekoa izango da aurretik zerrendatu diren hipotesiak abiapuntu izatea.

Lehenengo hipotesian, neska-mutilen irakurketa ohiturak desberdinak izango zirela espero zen eta esan dezakegu, emaitzak ikusi ondoren, hipotesi hau betetzen dela. Izan ere, irakurlearen generoa eta irakurtzen dituzten liburuak alderatzen badira, joera bat antzeman dezakegu. Ikerketa honetan parte hartu duten neskek aipatu dituzten irakurgaiak genero eta gai desberdinetako liburuak dira (fantasia, abentura, maitasuna, misterioa, komikiak, eleberriak); baina, aldiz, mutilek ez. Emaitzek diotez, mutilek molde zehatz bateko liburuak ez dituzte irakurtzen, eta gure ikerketan parte hartu duten mutilek, adibidez, ez dituzte *Go!azen* eta *Nur* moduko bildumak irakurri. Emaitzak ikusita antzematen da irakurle mutilek liburu berberak edo berdintsuak irakurtzen dituztela eta nesken irakurketa aldiz, anitzagoa dela.

Horretaz gain, garrantzitsua da azpimarratzea irakasleek haurrei etxean irakurtzeko eskatu dien liburuak oihartzun handia eduki duela. Zehazki, mutilen artean gehien irakurri eta aipatu den liburua izan da. Erantzunak ikusita, baliteke mutilek liburuak irakurtzeko ohitura gutxiago edukitzea. Izan ere, ikasle guztiek irakurri dute liburu hori eta mutilak izan dira liburua gehien aipatu dutenak. Haurrek irakurri duten liburua eskolan lantzeko aukera dutenean, ikasleak irakurketak eduki dezakeen indarra zein den konturatzen dira eta istorioen botereaz ohartzen dira. Izan ere, testuak lantzeko praktika aktiboak sustatzeak, ikasleei istorio batek pentsarazten eta sentiarazten dietena partekatzeko aukera ematen die. Gainera, irakurketen lanketak, norberak bere iritzia eman eta gainerakoen lekuan jartzeko aukera ematen du (Obregón, 2007).

Mutilen eta nesken irakurketa hautaketan zerk eragiten duen ikusteko, beharrezkoa da haurrei liburuak nork aholkatzen dizkien aztertzea. Horretarako, neska eta mutilek liburu hori zein bitartekariren bitartez heldu diren irakurtzera ikusi da. Joera desberdinak antzeman dira bi sexuen artean; nesketan bitartekaririk aipatuena, lagunak (19) dira. Mutiletan aldiz, gehien errepikatu den erantzuna, liburuak inork gomendatu gabe irakurri dituztela izan da (13).

Joera horrek erakutsi dezake neskek lagunen artean liburu gomendioen gainean mutilek baino gehiago hitz egiten dutela eta, beraz, nesken arteko solasaldietan, zentralitatea hartzen duen gai bat izan daitekeela literatura, eta literatura aisialdiarekin lotzen dutela. Emaitza honek, nesken irakurketa anitzetan eragina eduki dezake, izan ere, baliteke lagunek gomendatutako liburuak beraien interes eta gustuetatik gertuago izatea.

Mutil gehienek, inork gomendatu gabeko liburuak irakurtzen dituztenez, hurrek liburua irakurri baino lehen, informazio gutxi eskuratu dezakete. Izan ere, aurretik gomendiorik egon ez den liburuetan, jaso daitekeen informazioa, liburua berak ematen duena da; liburuaren izenburua, luzera, azala, protagonista, idazlea, liburuaren laburpena, irudiak, letra tamaina... Baliteke, informazio hori nahikoa ez izatea beraien interes eta gustuak benetan asetzeko eta horrek liburu edo gai zehatz batera mugatzera ekarri dezake.

Horretaz gain, guztira 17 liburuetako 10 protagonista, emakumezkoak dira eta liburu horien irakurle gehiengoa, neskek osatzen dute. *Salbuespen bakarra, Onin eta altxorraren uhartea* (Ibon Martin, 2018) eta *Uda bat Senegalen* (Lur Gallastegi, 2016) liburuak dira, izan ere, bi liburu hauetako protagonista neska bat da eta mutilak diren irakurleak ere baditu. Hala ere, *Onin* liburuaren kasuan, nahiz eta narratzailea neska izan, taldean abenturak bizitzen dituzte eta *Uda bat Senegalen* liburua irakasleek irakurtzeko eskatu dieten irakurketa izan da. Beraz, esan dezakegu, liburuetako protagonista neska denean, irakurle mutil gutxiago dituela eta protagonista mutila denean, irakurleen artean ez dagoela genero desberdintasun deigarriarik. Hala ere, agian, lagina handitzen joera hau aldatu egingo litzateke.

Oteguik (2023) egin zuen ikerketan, guztira 29 liburu bilduma identifikatu zituen eta sail horietako aipagarrienak, ikerketa honetan ikusitako emaitzekin bat datoz. Izan ere, bi ikerketetan *Nur* (Toti Martinez de Lezea), *Gizajo baten egunkaria* (Jedd Kinney) eta *Futboleroak* (Roberto Santiago) bildumak izan dira gehien aipatuena. Horretaz gain, Oteguik (2023) ikerketa emaitzetan aipatu zuen moduan, ikerketa honetan ere, hurrek komikiak irakurtzeko ohitura dute eta ez dago poesia edota antzerki libururik. Beraz, ikusi daiteke, joera hauek ikerketa honetan ere, errepikatu egiten direla.

Bigarren hipotesiak bitartekaria profesionalak gomendatutako liburuak genero ikuspegia kontuan hartuta aholkatzen zuela zioen. Ikerketa honetan lau bitartekari mota aipatzen dituzte hurrek; familia, irakasleak, lagunak eta liburutegia, haur batzuek, inoren gomendiorik gabe aukeratutako irakurketa izan zela aipatu zuten. Ikerketa honetan, familia izan da gehien aipatu dena. Oteguik (2023) bere ikerketaren ondorioetan ere familiak lekuri handiena duela ikusi dezakegu. Ikertzaile horrek dio, bere kasuan, balitekeela, etxeko kideen formazio mailak eta etxe gehienetan irakurketa ohitura izateak zeresan handia izatea joera horretan.

Aipatutako lau bitartekari horietatik, bi dira esparru profesionalean aritzen direnak: liburuzaina eta irakaslea. Kasu honetan, ordea, ondorioztatu dezakegu liburutegietako bitartekariak ez dutela indar handia izan, izan ere, liburu bakarra izan da profesional hauek gomendatu dutena (*Kika Supersorgina eta piratak*, Knister (2008)) eta estereotipoak erreproduzitzen dituen irakurketa moduan sailkatu da.

Oteguik (2023) burututako ikerketan, ikasleak liburutegietara lehen baino gutxiago joaten direla aipatu zuen. Izan ere, 2019an bizi genuen pandemiak, liburutegien erabilera modu negatiboan eragin duela ziurtatzen du. Hala ere, ikertzaileak dio, ikasleak gutxi joan arren, liburutegira joaten diren aldiro, kalitatezko zerbitzua jasotzen dutela. Kasu honetan, aldiz, ez da halako emaitzarik lortu.

Familiaren ondoren, gehien errepikatu den bitartekaria irakaslea izan da, profesional hauek gomendatu dituzten liburuak, hiru direla ikusi dugu. Hiru liburu hauetako batek (*Uda bat Senegalen*, Lur Gallastegi (2016)) ez ditu genero estereotipoak erreproduzitzen, baina beste biek bai. Ildo horretan, familiak edota lagunek gomendatutako liburuen guztietan erreproduzitzen dira genero estereotipoak.

Hortaz, bigarren hipotesia hein batean bete dela esango genuke: irakasleek eta liburuzainek liburu bat gomendatu dutenean genero ikuspegia kontuan hartu gabe egin izan dutela dirudien arren, estereotiporik betetzen ez duen liburu bakarra eta aipatuena irakasleak gomendatua izan da. Izan ere, ikasleek *Uda bat Senegalen* liburua irakurri ostean, irakaslearen gidaritzapean irakurketa hau landu eta horren gainean hausnartzeko aukera eduki dute. Beraz, ondorioztatu daiteke, honako hau, irakasleak espresuki eta kontzienteki aukeratu duen liburu bat izan dela eta irudipena dugu

aukeraketa honen atzean genero kontzientzia bat egon daitekeela. Emaizta hauekin antzeman daiteke irakasleak helburu akademiko baterako gomendatu duen liburuak ez dituela genero estereotipoak erreproduzitzen eta, aldiz, haurren aisialdirako gomendatu dituzten beste bi liburuak bai.

Hirugarren hipotesiaren arabera, pertsonaien deskribapenek eta ilustrazioek genero estereotipoak betetzen dituzte eta hipotesi hau bete dela esan dezakegu. Genero estereotipo hauek antzemateko, emaitzen moduan, atal desberdinetan sailkatu dira pertsonaien ezaugarriak (ezaugarri fisiko, psikologiko eta pertsonaiaren nortasuna) eta liburuetakoa ilustrazioei ere, arreta berezia jarri zaie.

Ezaugarri fisikoen artean ikusi dezakegu oraindik neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoak direla nagusi. Horretaz gain, ezaugarri psikologikoetan ateratako emaitzak ikusiz gero, neska sentikorrekin berbera gertatzen dela nabari da. Izan ere, sentimenduen gainean hitz egin edota negar egiten duten nesken kopurua mutilena baino altuagoa da eta mutil harro gehiago daude neskak baino. Hortaz, liburuetan genero estereotipo hauek sustatzen direla antzeman da.

Pertsonaia abenturazaleekin aldiz, ez da genero desberdintasunik nabari. Ezaugarri hori duen neska eta mutilen kasua orekatuagoa da. Ikerketa honetan, ausartak diren emakumeak, irakurketen azken multzoan (2020-2020) igoera bat ikusi da. Fernandezek (2017) egindako ikerketan antzematen den joera berbera ikusten da gure ikerketan, beraz. Izan ere, ikertzaileak dio 1980ko hamarkadatik hona, neska ausarten presentzia igo eta mutil ausarten pertsonaien kopurua jaitsi egin dela, beraz, ausardia parekidetasunerantz eboluzionatzen ari dela.

Jakintsuak diren pertsonaiei dagokienez, emaitzetan ikusi den moduan, mutilen presentzia handiagoa da (neskak 8 eta mutilak 11). Fernandezek (2017) ikerketaren emaitzetan ere mutil jakintsuen pertsonaiak gehiago ziren neskenak baino. Autore honen ikerketan, ikusi dezakegu, 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte, mutil jakintsuen presentzia erdira jaitsi den bitartean, neska jakintsuaren presentzia igotzen ari dela. Hala ere, autoreak azpimarratu du datuek euskal haur eta gazte literatura modernoan mutil jakintsuak gutxitzen ari diren arren, oraindik neskak baino mutil gehiago direla ezaugarri hau dutenak.

Pertsonaia lehiakorrei dagokienez, mutil lehiakor gehiago dira neskak baino (17 liburuetatik mutil lehiakorrak 9 eta neska lehiakorrak 5) nahiz eta ez dagoen alde handirik, aipatu beharreko joera bat dago. Izan ere, emaitzetan esan bezala, neska eta mutil lehiakorren pertsonaiak ez dituzte ezaugarri berberak betetzen eta desberdintasun honek, genero estereotipoak erreproduzitzen jarraitzen du.

Beste ezaugarri batzuekin honako hau ikusi da: erabakiak hartzeko, arazoak gainditzeko eta indarkeriaren erabilerarako joera mutilek dutela, eta aldiz, entzuteko eta laguntzeko prest dauden pertsonaien gehiengoak neskak direla. Horrek guztiak, jakina, estereotipoak indartzen ditu.

Ilustrazio eta testuei dagokienez, modu desberdinetara erreproduzitu dira genero estereotipoak. Idazlearen proposamenean iruditegi hori baldin badago, ilustratzailearen lehen interpretazioan horiek agertzea ere logikoa da, istorioa baitute ardatz. Emakumeen kasuan, gehiengoak argalak eta ederrak dira. Liburu batean (*Jara bikiak eta bikoteak*, Jasone Osoro) Ihintza (Jararen laguna) izena duen pertsonaia agertzen da. Idazleak adierazi duenez, Ihintza *lodia* da eta janariarekin ez du harreman onik. Jara Ihintzarekin haserretzen denean, iseka moduan lodia dagoela esaten dio. Hitzetan beraz, Ihintza pertsona lodia da baina irudietan ez. Honekin adierazi nahi dudana da, idazleak Ihintza lodia den nerabe baten moduan deskribatu duela eta pertsonaia berak eta gainerakoek, bere gorputzaren gaineko iruzkinak egin dituztela. Baina irudietan pertsonaia honek, gorputz argala du. Ziurrenik, autoreak pertsonaiaren pertzepzioa eta errealitatearen arteko aldea irudikatu nahi izan du honela (Ihintzak gaixotasun mental bat dauka eta), baina horrela, testua eta irudia ez datoz bat irakurlea ikusten ari denarekin.

Ondorioz, lagin honetan ez dago hitzez eta irudiz lodia den emakumezko pertsonaiarik. Lagin honetan, agertzen den emakume lodiaren gorputza (nahiz eta ondoren, ilustrazioetan pertsonaia, argala den gorputz batean agertzen den) janariarekin duen gaixotasun batekin justifikatzen da.

Gizonen kasuan aldiz, ez da logika berbera erabiltzen, liburu askotan azaltzen baitira gizon lodiak, nahiz eta idazleak ez duen pertsonaia horren gorputzaren gaineko aipamenik egiten. Gure laginean, gizonen gorputz lodien gaineko iruzkinik ez da ageri

testuan, eta irudietan, berriz, bai. Ezaugarri honekin genero estereotipoak erreproduzitzen dituzte, emakumeen gorputz normatiboak indartuz eta normatiboak ez direnak justifikatuz.

Bizi garen gizarte honetan, gorputz argalak arrakasta, edertasuna edota osasuna sinbolizatzen du, edertasun kanonei erantzuten dielako; eta aldiz, gorputz lodiak, porrota, gaixotasuna edota itsustasuna iradokitzen ditu. Horrek bizitza-estiloak eta gorputzak egokiak edo desagokiak diren sailkatzen eramaten gaitu (Navajas, 2021).

Literatura gizartearen isla dela diote eta kasu honetan, argi ikusten da hori. Gorputz lodia edukitzea ez da normatiboa. Hala ere, ez da berbera gertatzen gizon edo emakume lodietan. Emakumeek argaltasuna eta gaztetasuna lehenesten dituen edertasun estandarrera egokitu behar dute. Ezaugarri hauek, gizonen aurkakoak izaten dira (Bordo, 1993/1995 *apud* Navajas, 2021). Gainera, lodifobiak emakumeei gehiago eragiten die gizonei baino, izan ere, emakumeen nortasuna, adimena edota gizatasuna, itxura fisikoak eta pisuak baldintzatzen dituztela sinetsarazten da (Andreyeva et al., 2008 *apud* Navajas, 2021).

Ezinbestekoa da HGL gorputz anitzak eta desberdinak egotea. Izan ere, aurretik esan dugun moduan, literaturak eragin zuzena du norberaren garapen pertsonalean eta beharrezkoa da haurrek mota guztietako gorputzak liburuetan ikustea, hori baita errealitatea. Horretaz gain, emakume eta gizonen irudia ez da orekatua, gerra bat irudikatzen duen ilustrazioetako soldaduak, poliziak edota barkuko tripulazioko langileak, gizonezkoak dira eta aldiz, seme-alabez arduratzen direnak, liburu batean izan ezik, gainerakoetan emakumezkoak dira (ama edo amonak). Istorioetako irakasleen gehiengoa ere emakumezkoa da. Hortaz, lanbideak ere generizatuta irudikatzen dira: gizonek indarkeria edota boterea duten karguak dituzte; emakumeak aldiz, gainerakoak zaintzen eta irakaskuntzan ikusi ditzakegu. Fernandezek (2017) egindako ikerketan, aipatzen du lan ordainduetan bi sexuen arteko datuen aldea gutxitu den arren, oraindik ez dela orekarik nabari. Ikertzaileak dio berbera gertatzen dela boteredun karguekin, gizonek orduan eta kargu boteredun gutxiago dituzte, baina oraindik ez da parekidea.

Laugarren hipotesian zehaztu dugunez, idazlea gizonezkoa denean, estereotipoak betetzen dira eta emakumezkoa denean, ez dira betetzen. Hipotesi hau ez da bete, izan ere, emakumeek idatzitako 6 liburuetarik 5ek estereotipoak erreproduzitzen dituzte. Hala ere, badira horietatik bi liburu (*Zuhara-Amaia Telleria (2021)*) eta *Nur eta denboraren liburua*-Toti Martinez de Lezea (2013)) testu idatzian estereotipo espliziturik irudikatu ez dutenak, baina ilustrazioek genero estereotipoak erreproduzitu dituztenak. Dena dela, 17 liburuetatik soilik 4 dira emakume idazleak, beraz, baliteke lagina handituz gero, datu hauek aldatzea.

Emaitzek eta ondorioek argi erakusten dute liburuak irudi edota testuen bitartez genero estereotipoak erreproduzitzen dituztela. Nahiz eta pertsonaien artean hainbat ezaugarri eta jarrera aldatzen diren, oraindik bide luzea dago egiteko. Horregatik, ikerketa honek erakusten duena da ezinbestekoa dela bitartekariaren lana, izan ere, aurretik aipatu dugun moduan irakurketa egoki batek norberaren nortasun eta identitatean eragin zuzena du eta beharrezkoak dira irakurketa egokiak, nork bere burua aurkitu, eta askatasunean hezi eta hazteko, eta horrek haurrak irakurketan zehar jarrera kritikoa sustatuko duen bitartekariaren gidaritza eskatzen du halaberrez.

6. Bibliografía:

- Alonso, J.C. (2017). Haurren heziketa emozionala literaturaren bidez. *PostData*. Hemendik eskuratua: <https://postdata.elkar.eus/es/haurren-heziketa-emozionala-literaturaren-bidez/>
- Apalategi, U. (2011). Irakurzaletasuna hezkuntza sistemaren helburu?. *EGAN*, (3-4), 99-119.
- Aparicio, I. (2016). La influencia de la educación literaria en la identidad de género: una propuesta educativa. *Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, (10), 36-53.
- Barragán, F. (1989). Conocimiento social, sexismo y literatura infantil. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, (11), 8-12.
- Carraza, I., Llano, E., Lueje, J.L., Martín, T., Mogollón, L., Moreno, M. P., Moreno, M. A., Ruiz, M. I. eta Valdeón, E. (2008). *Breve diccionario coeducativo*. Consejería de Educación y Ciencia.
- Cerrillo, P. (2013). Canon literario, canon escolar y canon oculto. *Quaderns de Filologia-Estudis Literaris*, 18, 17-31.
- Cerrillo, P.C. (2016). La importancia de la literatura infantil y juvenil en la educación literaria. In Díez, A., Brotons, V., Escandell, D. Rovira, J. (2016). Aprendizajes plurilingües y literarios: Nuevos enfoques didácticos. Publicacions de la Universitat d'Alacant, 32- 41.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis
- Colomer, T. (2009). *Andar entre libros*. Mexico: FCE
- Díaz, M.J. (2009). Prevenir la violencia de género desde la escuela. *Revista Estudios de Juventud*. 86, 31-46.
- Eizagirre, X. (2022). Euskal liburugintza 2022. *Jakin*. Hemendik eskuratua: <https://www.jakin.eus/liburu-behatokia/2022ko-liburugintza>
- Eustat. (01/01/2023). Euskal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, adin betearen talde handien eta sexuaren arabera. 2001/01/01-2023/01/01. Eustat. Hemendik eskuratua: <https://www.eustat.eus/indice.html>
- Equipo Peonza (2001). *El rumor de la lectura*. Anaya.

- Etxaniz, X., Fernández, E., Rodríguez, A. (2019). Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera. *Egan*, 72(1-2). Hemendik eskuratua: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/article/view/198>
- Etxaniz, X. (2005). Gure arteko haur eta gazte literatura. *Tantak EHUko Hezkuntza Aldizkaria*. (33).
- Fernández, E. (2017). *Emakumearen irudia euskal haur literatura modernoan. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo egoera*. (Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea). ADDI.
- García, A.(2021). Nuevos mediadores de la LIJ: Análisis de los booktubers más importantes de habla hispana. *Cuadernos*.(48), 94–114. Hemendik eskuratua: <https://doi.org/10.7764/cdi.48.27815>
- Ibarrola, B. (2022). Los cuentos orientan y guían al lector en la gran aventura del vivir cotidiano. Begoña Ibarrola. Hemendik eskuratura: <https://www.begoibarrola.com/single-post/2019/08/17/los-cuentos-orientan-y-gu-c3-adan-al-lector-en-la-gran-aventura-del-vivir-cotidiano>
- Jover, G. (2008). Se está haciendo cada vez más tarde: Por una literatura sin fronteras. In Lomas, C., Atxaga, B., Bombini, G., Fernández, A. Landero, L., Mata, J., Moreno, V., Moure, G., Piñan,B., Rivas, M. (2008). *Textos literarios y contextos escolares: la escuela en la literatura y la literatura en la escuela* (149-178). Graó.
- Lluch, G., Chaparro, J., Rincón, M-C., Rodriguez, C., Victorino, A. (2009). *Cómo reconocer los buenos libros para niños y jóvenes. Orientaciones de una investigación de Fundalectura (Colombia)*. Bogotá: Fundalectura.
- López, M. L. (2017). Booktubers y literatura. *Revista Publicando*, 4(13), 963-974. Hemendik eskuratua: <https://revistapublicando.org/revista/index.php/crv/article/view/980>
- Lukas, J-F. eta Santiago, K. (2016). Hezkuntza-ebaluazioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mata, J. (2009). Idea clave 1: Conocer la historia del concepto de animación a la lectura es la clave para interpretarlo. In Mata, J. *10 ideas clave: Animación a la lectura: Hacer de la lectura una practica feliz, trascendente y deseable*. (19-33.) GRAO.

- Navajas, N. (2021). «Deberías adelgazar, te lo digo porque te quiero»: reflexiones autoetnográficas sobre la gordura. *Athenea Digital*, 21 (1) 1-21.
- Obregón, M. (2007) Los Círculos de Literatura en la escuela: [1]. *Lectura y Vida : Revista Latinoamericana De Lectura*, 28 (1), 48-57. Hemendik eskuratua: <https://ehu.idm.oclc.org/login?url=https://www.proquest.com/scholarly-journals/los-círculos-de-literatura-en-la-escuela/docview/237006176/se-2>
- Otegui, M. (2024). Haur eta Gazte Literaturako bitartekariak gaur egun. Ikerketarako abiapuntu bat. *EGAN*, 76(3-4), 11-50. Hemendik eskuratua: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/article/view/5326>
- Otegui, M. (2023). Saguak, arkakusoak eta ipurtargiak. Mariasun Landaren pertsonaien bilakaera genero-ikuspuntutik. V .Ikergazte,97.
- Permach, N. (2022). *Gaitasun literarioa Lehen Hezkuntzan; Irakurleak trebatzeko bidean*. (Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea). ADDI.
- Petit, M. (2001). *Del espacio íntimo al espacio público*. Lecturas: del espacio íntimo.
- Reizabal, L. (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida. Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Euskal Herriko Unibertsitatea eta UEU.
- Serna, M. (2015). *Bizkaiko Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurtzeko ohiturak eta irakurtzearen balioa: eskola-liburutegiaren eraginari buruzko azterketa*. (Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea). ADDI.
- Siadeco. (2018). Euskal Herriko biztanleen irakurketa eta musika ohiturak. *PostData*. Hemendik eskuratua: <https://postdata.elkar.eus/es/euskal-herriko-biztanleen-irakurketa-eta-musika-ohiturak/>
- Solé, I. (2012). Competencia lectora y aprendizaje. *Revista iberoamericana de educación*, (59), 43-61.
- Turin, A. (1995). Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos. Horas y horas
- Urtxintxa eskola (2006). *Ipuinak ez sexistak izateko gida. Gomendioak eta adibide praktikoak*. Bilbo: Urtxintxa eskola.

Zubeldia, I. (2000). Haur eta gazte literatura euskaraz. *EGAN*, (53), 3-4.

7.Eranskinak

I.Eranskina: Galdetegia

Generoa:	Zenbat urte dituzu? _____
-Neska <input type="checkbox"/>	
-Mutila <input type="checkbox"/>	
-Ez-bitarra <input type="checkbox"/>	

Zein da euskaraz irakurri duzun azken liburua?

Nork gomendatu dizu liburu hori irakurtzeko?

II.Eranskina: Liburu zerrenda

Eleberriak:

1. Amanda Black
2. Astrojokoak Minotauroen misterioa
3. Basamortuan galduta
4. Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa
5. Futboleroak lokartutako arbitroaren misterioa
6. Futboleroak suaren zirkuaren misterioa
7. Gauerdiko begiak itzalik gabeko izakiak
8. Golazen Eiderren egunerkoa
9. Golazen Itsasargiko misterioa
10. Golazen New York New York

11. Go!azen Londonen galduta
12. Itsas azpiko sekretua
13. Izaroko altxorra
14. Jara bikiak eta bikoteak
15. Kika supersorgina eta piratak
16. Munduari itzulia 80 egunetan
17. Nur eta denboraren liburua
18. Nur dordoken uhartea
19. Nur eta kobazulo liluragarria
20. Nur eta irlandar gnomoa
21. Onin altxorraren uhartea
22. Onin arimen gaua
23. Onin eta Afrikako bidaia
24. Onin eta baleen uhartea
25. Onin eta denboraren makina
26. Onin eta komiki madarikatua
27. Onin eta mitologiaren mundua
28. Onin eta sorginen sekretua
29. Pirata eskola erregina urdina
30. Txano eta Oscar begiak zeruan
31. Txano eta Oscar harri berdea
32. Uda bat Senegalen
33. Zuhara itsasoaren deia
34. Finlandiako ipuin eroak

Komikiak/Manga:

35. Cube arts
36. Cube arts 2
37. Gizajo baten egunkaria bikotean hiru
38. Gizajo baten egunkaria egia gordina
39. Gizajo baten egunkaria hondoratuta
40. Gizajo baten egunkaria suerte txarra

41. Gizajo baten egunkaria txango zoroa
42. Irri egin
43. Isaline sukaldaritzako sorginkeria
44. Maskoten bizitza dibertigarria
45. Miren emakumetzen nesken nerabezaroaz gehiago jakiteko
46. Nola erori zen Obelix txikitan Druisaren pertz barrura
47. Zonbien egunerokoa Muuu-gida Sendagai bila!
48. Samurai vs ninja urrezko arrautzagatik lehiak

Ipuin ilustratuak:

49. Daniela pirata eta ziklope maltzula
50. Munduko liburu metarik altuena
51. Potoloa naiz eta zer?
52. Xolak badu lehoien berri

Scapebook:

53. Azken denbora

Autobiografia:

54. Beruna patrikan

III.Eranskina: Corpusa

1. Amanda Black galdutako amuletoa
2. Astrojokoak Minotauroen misterioa
3. Basamortuan galduta
4. Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa
5. Gauerdiko begiak itzalik gabeko izakiak
6. Golazen Eiderren egunerokoa
7. Itsas azpiko sekretua
8. Izaroko altxorra
9. Jara bikiak eta bikoteak

10. Kika supersorgina eta piratak
11. Munduari itzulia 80 egunetan
12. Nur eta denboraren liburua
13. Onin altxorraren uhartea
14. Pirata eskola erregina urdina
15. Txano eta Oscar begiak zeruan
16. Uda bat Senegalen
17. Zuhara itsasoaren deia

IV.Eranskina: Datuak aztertzeko fitxa

1.ATALA: Liburuaren informazio orokorra

Liburuaren izenburua	
Liburuaren idazlea	
Idazlearen sexua	
Argitaratze urtea	

2.ATALA: Pertsonaia nagusiak

	Bakarra	Taldean
Mutila/Gizona		
Neska/Emakumea		
Neska-mutilak		

3.ATALA: Beste pertsonaiak

	Bakarra	Taldean
Mutila/Gizona		
Neska/Emakumea		
Neska-mutilak		

4.ATALA: Idazleak deskribapenak egiten ditu? (Pertsonaien ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta trebetasunak)

	Neskak	Mutilak
Ezaugarri fisikoak		
Ezaugarri psikologikoak		
Trebetasunak/gaitasunak		

5.ATALA: Ezaugarri fisikoak

	Neskak	Mutilak
Indartsuak		
Ahulak		
Ederrak		
Itsusiak		

6. ATALA: Ezaugarri psikologikoak (izaera)

	Neskak	Mutilak
Aktiboak		
Pasiboak		
Menderatzaileak		
Mantsoak		
Lehiakorrak		
Alferrak		
Sentikorrek		
Ausartak		
Adoetsuak		
Zitalak		
Lotsatiak		
Ahulak		
Abenturazaleak		
Ameslariak		
Heroiak		
Jakintsuak/ argiak		
Lasaiak		
Bihurriak		
Harroak		

7. ATALA: Nortasuna

	Neskak	Mutilak
Salbatzailea/Konpontzailea/Heroia		
Arazoak gainditzeko dituzte		
Menpekotasuna		
Autonomia		
Erabakiak hartze dituzte		
Indarkeriaren erabilera		
Laguntzeko/entzuteko prest		

8. ATALA: Estereotipoak testuan eta irudian

	Bai	Ez
Testuak eta ilustrazioek ez dituzte genero estereotipoak erreproduzitzen		
Testuak eta ilustrazioek genero estereotipoak betetzen dituzte		
Testuak ez ditu genero estereotipoak betetzen baina ilustrazioek bai		
Testuak genero estereotipoak betetzen ditu eta irudiek ez		
Testuak betetzen ditu (ez du ilustraziorik)		
Testuak ez ditu betetzen (ez du ilustraziorik)		

V.Eranskina: 1.taula: Galdetegi kualitatibotik ateratako liburu zerrenda

	Izenburua	Idazlea	Argitalpen urtea	Zenbatek	Laguna	Familia	Ikastetxea	Liburutegia	Inork
1	Amanda Black galdutako amuletoa	Juan Gomez	2023	1	1				
2	Astrojokoak Minotauroen misterioa	Leo Bican	2022	1					1
3	Azken denbora	Nerea Loiola	2023	2	1	1			
4	Basamortuan galduta	Christian Jolibois	2006	1		1			
5	Beruna patrikan	Ander Izagirre	2015	1				1	
6	Cube arts	Tomomi Usui	2023	1	1				
7	Cube arts 2	Tomomi Usui	2023	2					2
8	Daniela pirata eta ziklope maltzula	Susanna Isern	2024	1				1	
9	Finlandiako ipuin eroak	Joseba Ossa	2003	1				1	
10	Futboleroak lokartutako arbitroaren misterioa	Roberto Santiago	2017	2		1			1
11	Futboleroak sorgindutako gazteluaren misterioa	Roberto Santiago	2021	4	2	2			
12	Futboleroak suaren zirkuaren misterioa	Roberto Santiago	2023	3		2			1
13	Gauerdiko begiak itzalik gabeko izakiak	Daniel Hernández	2023	1		1			
14	Gizajo baten egunkaria bikotean hiru	Jef Kinney	2016	2	2				
15	Gizajo baten egunkaria egia gordina	Jef Kinney	2014	2	1	1			
16	Gizajo baten egunkaria hondoratuta	Jef Kinney	2023	2					2
17	Gizajo baten egunkaria suerte txarra	Jef Kinney	2017	2	2				
18	Gizajo baten egunkaria txango zoroa	Jef Kinney	2017	2	1	1			
19	Go!azen Eiderren egunerkoa	Jasone Osoro	2019	1	1				
20	Go!azen Itsasargiko misterioa	Lur Gallastegi	2022	1		1			
21	Go!azen Londonen galduta	Lur Gallastegi	2023	2	1	1			
22	Go!azen New York, New York	Jasone Osoro	2021	2	1			1	
23	Irri egin	Raina Telgemeier	2022	2					2
24	Isaline sukaldaritzako sorginkeria	Maxe L'hermenier	2018	2	1				1
25	Itsas azpiko sekretua	Lur Gallastegi	2020	3			3		
26	Izaroko altxorra	Iñaki Friera	2005	1		1			
27	Jara bikiak eta bikoteak	Jasone Osoro	2005	1		1			

28	Kika supersorgina eta piratak	Knister	2008	1				1	
29	Maskoten bizitza dibertigarria	James Campbell	2020	1			1		
30	Miren emakumetzen nesken nerabezaroaz gehiago jakiteko	Monica Peitx	2018	2	1	1			
31	Munduari itzulia 80 egunetan	Julio Verne	2017	1					1
32	Munduko liburu metarik altuena	Rocio Bonilla	2017	1		1			
33	Nola erori zen Obelix txikitari Druisaren pertz barrura	René Goscinny	2009	1		1			
34	Nur eta dordoken uhartea	Toti Martínez de Lezea	2012	1	1				
35	Nur eta kobazulo liluragarria	Toti Martínez de Lezea	2013	3	3				
36	Nur denboraren liburua	Toti Martínez de Lezea	2013	1	1				
37	Nur irlandar gnomoa	Toti Martínez de Lezea	2018	1		1			
38	Onin arimen gaua	Ibon Martin	2022	4	1	1			2
39	Onin altxorren uhartea	Ibon Martin	2018	5	1	2	1		1
40	Onin eta Afrikako bidaia	Ibon Martin	2020	2	1				1
41	Onin eta baleen uhartea	Ibon Martin	2019	3	1	2			
42	Onin eta denboraren makina	Ibon Martin	2021	1	1				
43	Onin eta komiki madarikatua	Ibon Martin	2023	4	2		1		1
44	Onin eta mitologiaren mundua	Ibon Martin	2021	1				1	
45	Onin eta sorginen sekretua	Ibon Martin	2020	1		1			
46	Pirata eskola erregina urdina	Steve Stvenson	2016	1			1		
47	Potoloa naiz eta zer?	Seve Calleja	2000	1					1
48	Samurai vs ninja urrezko arrautzagatik lehiak	Nick Falk	2018	1	1				
49	Txano eta oscar begiak zeruan	Julio Santos	2023	1		1			
50	Txano eta oscar harri berdea	Julio Santos	2018	1	1				
51	Uda bat Senegalen	Lur Gallastegi	2016	10			10		
52	Xolak badu lehoien berri	Bernardo Atxaga	1995	1			1		
53	Zonbien egunerokoa Muuu-gida Sendagai bila!	Guy Edmonds	2023	1		1			
54	Zuhara itsasoaren deia	Amaia Telleria	2021	1		1			
Guztira				98	30	27	18	6	17

VII.Eranskina: 11.taula: Ezaugarri psikologikoak

	2005-2013		2016-2019		2020-2023		Guztira	
	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna	Balioa	Maiztasuna
N_aktiboa	5		5	1	7	2	17	3
M_aktiboa	5	1	5	2	7	4	17	7
N_pasiboa	5		5		7		17	
M_pasiboa	5		5		7		17	
N_menderatzailea	5		5	1	7		17	1
M_menderatzailea	5	2	5	3	7	2	17	7
N_Mantsoa	5		5		7		17	
M_Mantsoa	5		5		7		17	
N_lehiakorra	5	1	5	1	7	3	17	5
M_lehiakorra	5		5	2	7	6	17	9
N_alferra	5		5		7		17	
M_alferra	5		5	1	7		17	
N_sentikorra	5	5	5	4	7	5	17	19
M_sentikorra	5		5	2	7	2	17	4
N_ausarta	5	1	5	2	7	5	17	8
M_ausarta	5	3	5	3	7	6	17	12
N_adoretsua	5		5		7		17	
M_adoretsua	5	1	5	3	7	4	17	8
N_zitalla	5		5		7		17	
M_zitalla	5	1	5	3	7	1	17	5
N_lotsatia	5	2	5	3	7	2	17	7
M_lotsatia	5		5	1	7	1	17	2
N_ahula	5		5	2	7		17	2
M_ahula	5		5		7		17	
N_sortzailea/abenturazalea	5	3	5	3	7	5	17	11
M_sortzailea/abenturazalea	5	3	5	5	7	4	17	12
N_ameslaria	5	3	5	2	7	1	17	6
M_ameslaria	5	3	5		7	1	17	4
N_eroia	5	1	5		7	1	17	2
M_eroia	5		5	2	7	4	17	6
N_jakintsua	5	3	5	2	7	3	17	8
M_jakintsua	5	3	5	2	7	6	17	11
N_lasaia	5	1	5	2	7		17	3
M_lasaia	5		5		7		17	
N_bihurria	5		5		7	1	17	1
M_bihurria	5	1	5		7		17	1
N_harroa	5		5		7		17	
M_harroa	5	2	5	1	7	3	17	6

VIII.Eranskina: Inplikazio etikoen aitortza

**GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK
 AITORTZEKO ADIERAZPENA**

Behean sinatzen dutenek (ikasleak eta tutoreak) adierazten dute honako alderdi hauek egiazkoak direla:

Ikaslearen izen-abizenak	Amaia Altuna Etxabe
Ikaslearen posta elektronikoa	aaltuna033@ikaslea.ehu.eus
Tutorearen izen-abizenak	Amaia Serrano Marizkurrena
Tutorearen posta elektronikoa	amaia.serrano@ehu.eus
Proiektuaren izenburua: <input checked="" type="checkbox"/> GRAL <input type="checkbox"/> MAL	LH5-6KO HAUREN LITERATUR OBREN AUKERAKETAREN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK
Proiektuaren laburpen laburra (gehienez 150 hitz)	Ikerketa honetan, 10-12 urte bitarteko haurrek irakurtzen dituzten liburuetan gizonen eta emakumeen pertsonaiak aztertu dira. Modu honetara, liburu horiek ea genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten ikertu da. Horretaz gain, adin tarte honetan, liburuen aukeraketara zein bitartekariren bidez heldu diren jakin eta erreferentzia-koak diren bitartekariak identifikatu dira. Horretarako, erabili den ikerkuntza metodoa kualitatiboa izan da; eskola publiko bateko 98 haur izan dira parte hartzaileak eta horietatik gehien errepikatu diren 17 liburuen genero irakurketa egin da. Azkenik, datuak aztertu, interpretatu eta ondorioak ateratu dira.
Saila:	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Ikastetxea:	HEFA II
Graduaren edo masterraren izena	LEHEN HEZKUNTZA

Planteatutako lanak barnebiltzen du (markatu dagokiona):

- Gizakien behaketa
- Inkesta, elkarrizketa, eztabaida-talde eta abarren bidez datu pertsonalak lortzea.
- Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak
- Beste jardura mota batzuk pertsonekin edo kolektiboekin (zehaztu)
- Aurreko ezer ez (zehaztu)

Adierazitako aukeretako bat edo batzuk badaude, behean sinatzenduteneke konpromiso hauek hartzen dituzte:

☐ Parte hartzen duten pertsona guztien baimen informatua jasotzea. Horretarako, honako betebeharrak hartzen ditugu gure gain: a) azterketaren izaerari eta horrek ekar ditzakeen onurei buruzko informazioa modu ulergarrian ematea; b) eskatutako parte-hartze mota eta emaitzei emango zaien erabilera akademikoa zehaztea; c) azterketak sor ditzakeen eragozpenak edo arriskuak zehaztea; d) azterlanetan ez parte hartzeko edo haren baimena edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dutela argi uztea, zenbait kalte edo diskriminaziorik eragin gabe; e) lortutako datuei eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela adieraztea, hala nahi izanez gero. f) Parte-hartzaileen anonimotasuna bermatzea, haien nortasuna babesteko eta jendaurrean agertzearen ondoriozko arriskurik ez izateko.

☐ Datuen konfidentzialtasuna bermatzea. Horrek barne hartzen du egiletza ez jakinarazteko konpromisoa, parte-hartzaileen segurtasunaren mesedetan, eta informazio hori Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen legediaren arabera erabiltzekoa. Argitaratzean parte-hartzailea aipatu behar bada, haren baimena beharko da.

☐ Aurreko puntuetan adierazitakoari dagokionez, arreta handiz jokatzeko azterlaneko parte-hartzaileak adingabeak direnean edo, oro har, edozein kolektibokalteberetako pertsonak direnean.

☐ Datuak babesteari buruzko legeria ezagutzea eta betetzea. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko; 2016/680 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko.

Donostian, 2024(e)ko ekainaren 3 (e)an

Sin.: Tutorea

AMAIA SERRANO
MARIZKURRENA

A-72501670N

Digitally signed by AMAIA
SERRANO MARIEZKURRENA
- 72501670N

Date: 2024.06.03 14:31:54
+02'00

Sin: Ikaslea

AMAIA